

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**4554** *15/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 21ekoa, Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarriena.*

#### HITZAURREA

#### I

Osasunaren Mundu Erakundeak martxoaren 11n COVID-19ak eragindako nazioarteko pandemia deklaratu ondoren, haren hedatze azkarrak, bai naziokoak bai nazioartekoak, azkar erreakzionatzeko eta presako neurri sendoak hartzeko beharra eragin du, aurrekaririk gabeko krisi honen eragina arintzeko helburuarekin.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko, eta, besteak beste, zirkulazio-askatasunerako mugak ezartzen zituen, neurri horrek langile, enpresa eta herritarrei eragiten dizkien ondorioekin.

Prozesu hori indartu egin zen martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, zeinak berreskuratzeko baimen ordaindu bat arautzen baitu besteren kontura diharduten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat, COVID-19aren kontrako borrokan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko asmoz; errege lege-dekretu horrek berreskuratzeko baimen ordaindua ezartzen zuen telelana egin ezin zuten edo funtsezko zerbitzutzat jotzen ez ziren sektoreetan lanean ari ziren langileentzat, izan ere, bi astez etxean konfinatuta geratu behar zirela ezartzen zuen haientzat. Alarma-egoera bi aldiz luzatu da; apirilaren 26ra arte indarrean jarraituko du eta Diputatuen Kongresuari maiatzaren 9ra arte luza dezan proposatuko zaio.

Elkarrengandik urruntzeko neurriak arrakastatsuak izaten ari dira epidemiari eusteko, baina eragin nabarmena dute jarduera ekonomikoaren zati handi batean, naziokoan zein nazioartekoan, bai eta eragileen itxaropenetan ere.

Elkarrengandik urruntzeko lehen neurriak ezarri ondoren, oraindik ere tonu ekonomiko positiboari eutsi zitzaion, sektore batzuetan izan ezik; adibidez, nazioarteko eskariaren beherakadak eta mugen pixkanakako itxierak eragin zuzena izan zuten turismoaren sektorean. Alarma-egoerarekin batera mugikortasunari eta jarduerari ezarritako murrizketek inflexio-puntu bat ezarri zuten: ekoizpenaren eta enpleguaren bat-bateko beherakada eta errenta-galera handiak izan ziren etxe, autonomo eta enpresentzat.

Hori dela eta, Gobernuak hiru mailatan antolatu du COVID-19aren larrialdiari eman beharreko erantzuna: osasun arloa, ekonomia arloa eta gizarte arloa. Birusaren hedapenari eusteko osasun-arloan hartutako neurriekin batera, ekoizpen-sarea babesteko eta herritarrentzako segurtasun-sare bat ehuntzeko neurriak hartu dira, batez ere kalteberatasun egoera larrienean direnentzat.

Horrela, birusaren aurkako borrokaren fase desberdinetan, mugikortasuna eta kutsatzeko arriskua murrizteko hartu diren osasun arloko arauekin batera, neurri ekonomiko eta sozialen paketeak ezarri dira, honako helburu hauekin: (i) osasun-erantzunaren finantzaketa indartzea, bai arreta eta zaintza arloetan, bai ikerketa arloan; (ii) familien eta langileen errentak mantentzea, besteren konturako langileen kasuan nahiz autonomoen kasuan, kalteberatasun egoera larrienei erantzunez, eta (iii) enpresen likidezia bermatzea eta ekoizpen-sareari eusten laguntzea, enpresa txiki eta ertainei bereziki erreparatuz.

Neurri horien guztien helburua da epidemiak ez uztea susperraldia oztopatuko duen orbain iraunkorrik, eta neurri haiek abian jartzeak ahalbidetzen du enpresa askok jarduerari eta enpleguari eutsi ahal izan diezaioten; hain zuzen, osasun-krisia gainditzen denean, beren jarduerari pixkanaka berrekin ahal izango dioten enpresak.

Hartutako erabakiak eta abian jarritako neurriak gure inguruko herrialdeak hartzen ari diren neurrien ildo berean daude, eta bat datoz Europar Batasuneko eta nazioarteko erakundeen gomendioekin. G-20ak, apirilaren 15ean bilduta, Ekintza Plan bat adostu zuen kideen politika eta neurri ekonomikoak koordinatzeko, eta adierazi zuen beharrezkoa dela politika ekonomikoko tresna guztiak erabiltzea ekonomia babesteko, konfiantza eta egonkortasun finantzarioa mantentzeko eta ekonomietan ondorio negatibo sakonak saihesteko.

Europar Batasunaren esparruan, hainbat neurri hartu dira herrialdeek esparru malguago bat izan dezaten pandemiarekin loturik hartuko dituzten neurriak antolatzeko orduan, eta apirilaren 9an erabaki da proposamen-sorta bat abian jartzea. Proposamen horiek epe laburrean jarri beharko liriteke abian altxor nazionalak COVID-19a dela-eta egiten ari diren gastuak, bereziki osasun arloan eta aldi baterako enplegu-erregulazioko programen arloan, finantzatzeko kredituak eskura jartzeko.

Testuinguru horretan, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuak xedatutako euste-fase indartuaren ondoren, osasun arloko aurrerapenak apirilaren 13tik aurrera lehengo konfinamendu eta jarduera ekonomikoaren mailara itzultzea ahalbidetzen du, hain zuzen, alarma-egoera deklaratzeko errege-dekretuak xedatutako egoerara. Espero zen bezala, funtsezkotzat jotzen ez diren sektoreetan jarduerara itzultzeak jardueraren susperraldi arina eta lan-merkatuaren bilakaera hobea ahalbidetu du, nahiz eta COVID-19ak eragindako krisiaren aurreko mailak berreskuratzetik oso urrun egon oraindik.

Puntu horretatik aurrera, ekonomia gehiago suspertzeko faseari ekiteko erabakiak, orain arte egin den bezala, adierazle epidemiologikoen bilakaeraren eta adituen gomendioen arabera izango dira, eta suspertze hori mugikortasun pertsonala aktibatzearekin batera etorriko da.

Salbuespeneko egoera hori luzatzearen ondorioz sortu diren laguntza indartua emateko premiei erantzuteko, ekoizpen- eta gizarte-sarea babesten eta sostengatzen jarraitzeko, inpaktua minimizatzeke, bai eta osasun publikoko larrialdi-egoera hori arintzen hasten denean jarduera ekonomiko suspertzen laguntzeko premiei erantzuteko ere, neurri-sorta berri bat onartzen da, aurretik hartutakoak indartu, osatu eta zabaltzen dituena. Neurri-sorta horrek enpresei eta langileei laguntza ematea du ardatz.

Errege lege-dekretu honek egitura hau dauka: hitzurre bat, 5 kapitulu, 26 artikulua, 15 xedapen gehigarri, 5 xedapen iragankor, 13 azken xedapen eta eranskin bat.

## II

### ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN ETA AUTONOMOEN KOSTU OPERATIBOAK MURRIZTEKO NEURRIAK

COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratuaren duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak hartutako salbuespeneko neurrien ondorioz, jarduera ekonomiko askok jarduera eten behar izan dute edo hura nabarmen murriztu.

Aurrekoaren arabera, alarma-egoerak irauten duen bitartean diru-sarrerarik ez badago edo diru-sarrera horiek gutxitzen badira, autonomoek eta enpresa txiki eta ertainek ezin izango dute alokairuko lokalen errenta ordaintzeko obligazio osoa edo partziala bete, eta horrek arrisku larrian jartzen du beren jarduerekin jarraitzea.

Alderdiak elkarrekin ados jarri ezean, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak ez du errenta ordaintzea salbuesteko inolako kausarik aurreikusten, ez ezinbesteko kasuagatik, ez alarma-egoera aitortzeagatik edo beste kausa batzuegatik; baina 26. artikuluan obrak egitearen ondoriozko etxebizitzaren bizigarritasunari buruzkoa jasotzen du, hain zuzen, lege horren beraren 30. artikulua bidez aplikatu ahal izango zaiena negozio-lokalei.

Era berean, Kode Zibilak ezinbesteko kasuari buruz arautzen duenera jotzen bada, hark ere ez du konponbide egokirik ematen, ez baitu arrisku-banaketa alderdien artean doitzen; baina kontratua suntsiaraztea justifika dezake kasu larrietan.

Egoera horren aurrean, berariazko erregulazio bat behar da, jurisprudentziaren lanketatik datorren «*rebus sic stantibus*» klausularen ildotik. Klausula horrek kontratu-betebeharrak modulatzeko edo aldatzeko ahalbidetzen du eskatutako baldintzak betetzen badira: sortutako arriskuaren aurreikusiezintasuna eta halaberrezkotetasuna, zor den prestazioaren gehiegizko kostu handia eta kontratuaren fede ona.

Komenigarritzat jotzen da egoera horri aurre egiteko ahalbidetuko duen erantzun bat eskaintzea eta prozedura bat arautzea, alderdiek akordio batera iritsi ahal izan daitezen lokalen alokairu-errenten ordainketa modulatzeko.

### III

#### ENPRESEN FINANTZAKETA INDARTZEKO NEURRIAK

Enpresen finantzaketa indartzeko neurri-sorta zabala arautzen du 2. kapituluak.

Lehenik eta behin, egungo osasun-krisialdiaren eraginpean egon diren enpresek ahalik eta modurik onenean egiteko aurre administrazioaren zenbait tresnataki jasotako kredituen ondoriozko ordainketei: errege lege-dekretu honetan Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutua (EDAI), Energiaren Estatu Idazkaritzari atxikitako erakunde publikoa baita, gaitzen da bere dirulaguntza edo laguntza itzulgarrien programen esparruan emandako maileguen kuotak geroratzeko onar dezan; hartara EDAlren kredituetara zabaltzen da kuotak geroratzeko aukera, zeina jada onartu baita lehenagoko errege lege-dekretuetan Industriako Idazkaritza Nagusiaren kredituetarako, besteak beste, REINDUS programaren barrukoak.

Likidezarako irispidea indartzeko edo kredituen ordainketa errazteko neurriak hartzeaz gain, beharrezkoa da transakzio ekonomikoaren garapenaren jarraipena bermatzea eta segurtasuna ematea merkataritza-eragiketegi, egungo ziurgabetasun-testuinguruan.

Horren harira, aseguruaren sektoreak eginkizun nabarmena du. Kreditu-aseguruak eta kauzio-aseguruak helburu horiek lortzen laguntzen dute; izan ere, hurrenez hurren, salmentak edo zerbitzu-prestazioak kobratzen direla eta legezko edo kontratuko betebeharrak betetzen direla bermatzeko balio dute aseguru horiek.

Egungo testuinguruan, beharrezkoa da aseguruaren sektoreak eginkizun hori bete dezan lagunduko duten mekanismoak indartzea. Horregatik, kreditu-merkatuaren egoera txarra eta aseguraturako arriskuen estaldura murriztearen ondorioz enpresen arteko merkataritza-harremanei eta ordainketei eragin diezaieketen zailtasunak kontuan hartuta, Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoari ahalmena ematen zaio 2020tik aurrera kreditua eta kauziora berraseguratzeko jarduerak egin ditzan.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak Ekonomia Gaietarako eta Transformazio Digitalerako Ministerioak emandako abal-lerro bat onartzen zuen, kreditu-entitateek, kredituko finantza-establezimenduek, diru elektronikoko erakundeek eta enpresei eta autonomoei ordaintzeko erakundeek emandako finantzaketa estaltzeko. Abal-lerro horren helburu nagusia, 100.000 milioi euroko gehieneko zenbatekoaz hornituta baitago, finantzaketa-fluxuen eta zirkulatu- eta likidezia-mailen normaltasuna zaintzea da, bereziki enpresa txiki eta ertainena eta autonomoena. Zehazki, abal-lerroak ahalbidetu behar du: enpresek eta autonomoek beren langileen soldatak ordaintzen jarrai dezaten; haien fakturen kobrantza aurreratu dadin *factoringa* bezalako figuren bidez; hornitzaileei fakturen ordainketa aurreratu dakien *confirminga* bezalako modalitateen bidez. Horrela, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren mailak mantentzeko bitartekoak ezartzen dira. Finantzaketa ematen duten erakundeek helburu horiek betetzen direla zaindu behar dute, likidezia ekoizpen-sare osora iristen jarraitzeko, bereziki merkataritza-kredituko eta hornitzaileei ordaintzeko kanalen bidez.

Errege lege-dekretu horrek ezartzen du Ministro Kontseiluaren erabaki bidez ezarriko direla aplikatu beharreko baldintzak eta bete beharreko betekizunak, abala eskatzeko gehieneko epea barne. Martxoaren 24an eta apirilaren 10ean, Ministro Kontseiluak bi erabaki hartu zituen enpresei eta autonomoei emango zaizkien 40.000 milioi euroko abalak

liberatzeko. Abal horien % 75 enpresa txiki eta ertainetara eta autonomoengana bideratu dira, haiek dira eta jarduera ekonomikoaren funtsezko eragileak, eta likideziarako irispidea izan dezaten funtsezkoa da ekoizpen-sareak behar bezala funtzionatuko badu.

Likideziari laguntzeko neurri indartzeko eta horien irismena zabaltzeko, errege legedekretu honek hiru neurri osagarri hartzen ditu azken xedapenetako batean. Lehenik eta behin, Espainiako Birfidantzamendu Konpainia Sozietate Anonimoak (CERSA) emandako berrabala indartzea aurreikusten du, elkarren bermerako sozietateen abal-ahalmena handitzeko; Espainiako autonomia-erkidego guztietan daude sozietate horiek eta dauden eremu geografikoetako enpresa txiki eta ertainen finantzaketarako irispidea indartzeko kapilaritate handia dute. Gainera, ezartzen du abalen onuradun izan ahal izango direla Finantza Aktiboen Bitartekarien Elkartearen (AIAF) errenta finkoko merkatuan eta errenta finkoko merkatu alternatiboan (MARF) sartutako ordaindukoak, horrela kapital-merkatuek emandako likidezia-iturriei eustea sustatzen da, ohiko banku-kanalen bidez lortutakoak bakarrik izan ez daitezzen. Bi kasuetan, abalen baldintzak Ministro Kontseiluaren erabaki bidez ezarriko dira. Azkenik, bermatzen da 2020ko abenduaren 31ra arte liberatu ahalko dela 100.000 milioi eurorainoko abal-lerroa.

## IV

### NEURRI FISKALAK

Material sanitarioaren hornidura azkar eta modu eraginkorrean egin ahal izateko, 2020ko uztailaren 31ra arte ezartzen da balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko zero zerga-tasa mota horretako Europar Batasunaren barruko ondasun-emateei, inportazioei eta eskuratzei dagokienez, baldin eta hartzaileak entitate publikoak, irabazi-asmorik gabekoak, eta ospitaleak badira. Politika fiskaleko neurria da, ohiz kanpoko egoera batean eragiten duena, eta indarrean egongo den aldi eragin nabarmena izatea du helburu, baina balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasen egiturari modu iraunkorrean eragiteko asmorik gabe. Subjektu pasiboan fakturatzeko sistemak egokitzeko beharra saihesteko, eragiketa horiek salbuetsitako eragiketa gisa dokumentatuko dira fakturan. Hala eta guztiz ere, ehuneko zero zerga-tasa aplikatzeak ez du mugatzen eragiketa egiten duen subjektu pasiboak jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kenkarirako duen eskubidea.

Zergen likidazioei aplikatu beharreko kalkulua errealtate ekonomikora egokitzeko, bi neurri hartzen dira zerga-arloan. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, eta aldi horretarako ondorio eskusiboekin, baimena ematen da 600.000 eurotik gorako eragiketa-bolumena ez duten zergadunek ordainketa zatikatuak egiteko lehenengo 3, 9 edo 11 hilabeteetako zergaldiaren zerga-oinarriaren zatiaren gainean; horretarako, zerga-oinarriaren modalitate hori aplikatuta zehaztutako ordainketa zatikatua aurkeztu beharko dute 14/2020 Errege Lege Dekretuak luzatutako epearen barruan. Aurrekoaren arabera aukera baliatu ezin izan duten eta negozio-zifraren zenbateko garbia 6.000.000 eurotik gorakoa ez duten zergadunek aukera hori baliatu ahalko dute 2020ko urriaren lehenengo 20 egunetan aurkeztu behar duten ordainketa zatikatuaren epean; ordainketa hori aipatutako zerga-oinarriaren modalitatea aplikatuta zehaztuko da. Neurri hori ez zaie aplikatuko Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen VII. tituluko VI. kapituluan araututako zerga-baterakuntzako araubide berezia aplikatzen duten talde fiskalei.

Bestalde, ezinbestekoa da zeinu, indize edo moduluen arabera zehazten diren zergatutako zatikako ordainketen eta konturako diru-sarreraren zenbatekoak aldi baterako egokitzea; izan ere, egungo osasun-larrialdiak jarduera aldatu egin du. Hala, egokitu egingo dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoaren ordainketa zatikatuen eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide sinplifikatuaren konturako sarreraren kalkulua, alarma-egoerak jarduera ekonomikoan eragindako denboraldiaren proportzioan egokitu ere; kalkulu hori normaltasun-egoeran

zehaztutako zeinu, indize edo moduluen arabera egina da, eta gaur egungo diru-sarreraren errealitatearekin bat ez datozen zenbatekoak ekarriko lituzke.

Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen araubidea malgutzeko, ezabatu egiten da legeak ezartzen duen hiru urteko iraunkortasun-epea, araubide batzuei uko egin ondoren bete beharrekoa, hain zuzen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoari, eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide sinplifikatuari eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziari uko egin ondoren bete beharrezkoa; hartara zergadunek 2021eko ekitaldian metodo hori berriz aplikatu ahal izango dute, betiere, hura aplikatzeko baldintzak betetzen badituzte. Horrela, beren etekin garbiaren zenbatekoa zuzeneko zenbatespenaren metodoaren arabera zehaztu ahal izango denez, modu zehatzagoan islatu ahal izango dute beren jarduera ekonomikoan COVID-19aren ondorioz izandako diru-sarreraren murrizketa, erabaki horrek hurrengo ekitaldian aplikatu beharreko etekinak zehazteko metodoari eragin gabe.

Bestalde, apartatu bat, 3.a, gehitzen zaio COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriari. Helburua da errekurtsio berezia aurkeztu eta izapidetu ahal izatea —Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoari jarraituz—, baldin eta sektore publikoko erakundeek dena delako kontratazio-prozedurarekin jarraitzea erabaki badute martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuarekin bat, hau da, errekurtsio-prozedura etentzat jo dadin ekiditea. Horrela, prozedura horietan parte hartzen duten lizitzaile guztiek beren eskubideak baliatu ahalko dituztela bermatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako errekurtsio bereziaren epeak lege horretan ezarritako moduan zenbatzen jarraituko baitira.

Era berean, maiatzaren 30era arte egongo dira indarrean zerga-neurri jakin batzuk, hain zuzen, 8/2020 eta 11/2020 errege lege-dekretuetan, 2020ko apirilaren 30era edo, hala badagokio, 2020ko maiatzaren 20ra arteko denbora-muga zutenak, horrela eginez neurri horiek ondorioak arindu nahi zaizkion krisiaren bilakaerara egokitzen direla bermatzen baita. Hedapen hori, halaber, autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako zerga-administrazioei aplikatuko zaie, 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin bat.

COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, finantza-laguntza iragankorreko neurri gisa, zerga-zorrak geroratzearen arloko malgutzeta ezarri zen, eta enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei sei hilabetez eman zitzairen zergak ordaintzeko erraztasun hori eskatzen bazuten; baina zenbateko jakin bat gainditzeko ez zutelako bermea aurkezteko betebeharratik salbuetsita zeuden zorrei baino ez zien eragiten.

Aukera horren osagarri gisa, errege lege-dekretu honen bidez, zerga-zorrak ordaindu ahal izateko baldintza gisa finantzaketa lortu beharra jar dadila erabakitzen da, hain zuzen, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak aipatzen duen eta Estatuaren abala izango duen finantzaketa.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen duen azken xedapen bat sartzen da. Errege lege-dekretu horrek, bere 33. artikulua bidez, malgutu egin zituen, beste epe batzuen artean, enkanteen garapenarekin eta ondasunen esleipenarekin lotutako epeak, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorren 104.2 eta 104 bis artikuluetan aipatzen direnak.

Arau-jarduerak izan behar duen segurtasun juridikoaren mesedetan, oso bereziki gaur egun, legegileak gizarte zibilaren esku jartzen dituen arau-tresnak etengabe egokitu eta hobetu behar baitira, eta dagoeneko ezarrita dauden zerga-betebeharrak malgutzeko arauen osagarri gisa, konponbide bat ezartzen da artikulua horren 3. apartatuaren legealdaketa bat eginez. Haren bidez, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak garatutako besterentze-prozeduretan lizitzaileek eta esleipendunek dituzten eskubideak prozedura horiei eragiten dieten epeen luzapenera egokitzen dira; hartara, lizitzaileak bere

eskaintzak deuseztatzeko eta eraturako gordailuak askatzeko eskatu ahal izango du, bai eta, hala badagokio, sartutako errematearen prezioa ere, baldin eta, esleipendunei dagokienez, ondasunak esleitzeko edo salmenta-eskritura publikoa formalizatzeko aktaren ziurtagiria eman ez bada.

Azkenik, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, konfinamenduaren ondorioz herritarren kultura- eta informazio-produktuen eskaria handitu denez, liburu, egunkari eta aldizkari digitaletarako irispidea errazteko, azken xedapen baten bidez, ehuneko 4ra murrizten da haiei aplikatu beharreko zerga-tasa, eta, aldi berean, liburu fisikoaren eta liburu elektronikoaren artean zerga-tasen arloan dagoen diskriminazioa kentzen da.

V

#### EKONOMIAREN DOIKUNTZA ERRAZTEKO ETA ENPLEGUA BABESTEKO NEURRIAK

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan, kontratuak aldi baterako eteteko eta lanaldiak aldi baterako murrizteko (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak) zenbait neurri hartu ziren, eta haien helburua da ekiditea egungo egoera koitunturalak egiturazko ondorio negatiboak eragin ditzan enpleguaren arloan.

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren kasuan, lan-arloko doikuntza-neurrietara jotzeko beharra, kasu askotan, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan xehetasunez deskribatutako inguruabarren ondorio da, hots, enpresaren borondatearekin zerikusirik ez duten inguruabarren ondorio. Beraz, manu honetan definitutako ezinbesteko kasua ez dago konfiguraturata gure ordenamendu zibilean kontzeptu horrek duen erakuntza doktrinal eta klasikoari erreferentzia eginez. Lege bidez sortu den eta administrazio-zehaztasuna duen kontzeptua da, zuzenean eta ezinbestean lotuta dagoena gure herrialdeak eta planeta osoak aurrez aurre duten aurrekaririk gabeko osasun-krisiaren ondoriozko salbuespen-egoerarekin. 22. artikulua zehazten du zein kasutan ematen den objektiboki baldintza edo izaera nahigabe, ezinbesteko eta eragozle hori, eta lan-agintaritzari dagokio egiaztatzea deskribatutako egitateak gertatzen direla, egitateen eta enpresaren ekoizpen-jarduera bereziaren arteko beharrezko lotura dagoela, bai eta proposatutako neurrien —langileei nahiz helburuei dagokienez— eta ezinbesteko gertaeraren arteko proportzionaltasuna dagoela ere.

Beste gertaera katastrofiko batzuetan ez bezala, errege lege-dekretuaren 22. artikuluan deskribatutako ezinbesteko kasua zirkunstantzia zehatz aldakorrek lotzen da, eta zirkunstantzia horiek kasu bakoitzean legeak erabakitzen ditu; hortik dator haren definizioa, kasu bakoitzean kausaren konkurrentzia dagoela erakusten duten elementuak eta lan-agintaritzari esleitutako zeregina. Ondorioz, errege lege-dekretu honetan jasotzen den 22. artikulua aldaketarekin argitzen den bezala, ezinbesteko kasua partziala izan ahalko da. Ildo horretan, gerta daiteke ezinbesteko kasuak langile guztiengan eraginik ez izatea krisi honetan funtsezkotzat jotzen diren jarduerak garatzen dituzten enpresei dagokienez, eta 22. artikuluan deskribatutako kausa eragozlea gertatzea funtsezkotzat jotzen ez den jardueraren zatian edo plantillaren zati batean.

Era berean, aldi berean langile finkoen babesa indartzen da, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan araututako estaldura COVID-19aren ondorioz aurreikusitako datetan beren jarduerara itzultzerik izan ez duten langileei zabalduz, baldin eta, behar adina okupazio-aldi kotizatua izanik, legezko langabezia-egoeraren baldintza betetzen ez badute edo langabezia-prestazioa jasotzerik ez badute hura eskuratzeko behar den kotizazio-aldia betetzen ez dutelako.

Langile autonomoek 2019ko ekainera arteko epea zuten Gizarte Segurantzaren prestazio jakin batzuk kudeatzeko harekin elkarlanean diharduen mutualitatearen baten aldeko aukera egiteko. 50.000 autonomo inguruk ez zuten halakorik egin, eta, une honetan, modu masiboan egin behar dute jarduera uzteko eskaera; hori dela eta, errege lege-dekretu honetan xedatzen da mutua bat aukera dezaketela jarduera uztea eskatzeko unean, eta hartara bermaturik edukiko dute erakunde horrek eskubidea aitortu ahal izango diela eta eskabidearen izapidetzea erraztu.

Era berean, une horretatik aurrera, aldi baterako ezintasunaren prestazioa eskatu ahal izango dute aukeratzen duten mutualitatean.

Bestalde, segurtasun juridikoa bermatzeko eta administrazio publikoetan, oro har, epeak eteteko hartutako neurriekiko koherentzia bermatzeko, eten egiten dira Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzaren funtzionamendu- eta jarduera-eremuan indarrean dauden epeak, salbu eta erakunde horren esku-hartzea beharrezkoa denean interes orokorra babesten dela bermatzeko edo COVID-19arekin lotuta dauden kasuak ebazteko.

Bestalde, martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuak egungo egoerara egokitutako zehapen-araubide bat garatu zuen, eta prestazioak jasotzean iruzurrezko jokabideak saihesteko kontrol- eta zehapen-mekanismoak ezarri. Errege lege-dekretu honetan indartu egiten dira kontrol- eta zehapen-mekanismo horiek. Zehazki, emandako datuetan faltsutasunak eta okerrak dituzten eskaerak aurkezten dituzten enpresen portaerentzako zehapena arautzen da, eta enpresaren erantzukizuna ezartzen da, hain zuzen, enpresak bere langileek bidegabe jasotako prestazioak itzultzea dakarrena, baldin eta langile horien dolorik edo errurik ez badago.

Gainera, gaur egungo osasun-larrialdiaren testuingurua kontuan hartuta, ezohiko moduan eta denbora-muga batekin, aukera ematen da Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funtsa COVID-19tik datorren osasun-krisialdiaren ondorioak geldiarazten edo arintzen laguntzen duen edozein jardueratarako bideratu ahal izateko, ekintza propioen, beste erakunde publiko edo pribatu batzuei egindako dohaintzen edo kooperatibari martxan jarrai dezan emandako likideziaren bidez; funtsa hori funtsezkoa da bazkideen prestakuntzan eta heziketan, kooperatibismoaren hedapenean, eta tokiko ingurunearen eta, oro har, erkidegoaren kultura-, lanbide- eta laguntza-sustapenean.

Lan-sozietateak funtsezko erakundeak dira gizarte-ekonomiarako eta enplegua sortzeko. Horregatik, lan-sozietate baten bidez egituratutako enpresa-ekimenei laguntzeko helburuarekin, lan-sozietate kalifikazioa izan nahi duten sozietate anonimoek edo erantzukizun mugatukoek bete behar dituzten betebeharrak batzuk malgutzen dira ezohiko aldi batez.

Azkenik, langileen babesa bermatzeko eta COVID-19aren krisiaren testuinguruan lana eta familia uztartzeko premiei erantzuten jarraitzeko, bi hilabetez luzatzen da urrutiko lanaren lehentasunezko izaera, bai eta ordutegia egokitzeko eta lanaldia murrizteko eskubidea ere.

Bestalde, pandemiaren ondoriozko egoera ekonomikoa dela eta, komeni da gaur egungo Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian sartutako Nekazaritza-arloko Norberaren Konturako Langileentzako Sistema Berezia bultzatzea eta indartzea, nekazaritza-sektoreak lehen lerroko postua bete behar baitu jarduera ekonomikoan, biztanleria aktibo landunean zein barne-produktu gordinean duen garrantziagatik; horretarako, haren erregulazioa Espainiako landa-eremuaren errealitate berrira egokitu behar da.

Hori dela eta, aipatutako sistema berezian sartzeko betebeharrak aldatzen dira, eta aldaketa horren bidez, alde batera utzi nahi dira lan-errentei lotutakoak. Horiek kenduta, erraztu egiten da nekazari txikiek berme sozialak eskuratzeko bidea, eta horrek segurtasun juridikoa hobetzen lagunduko du, argi eta garbi zehazten baitu nekazari txikia nor den.

Aldaketa horren bidez, gainera, COVID-19aren pandemiak duen eragina arindu nahi da; izan ere, ekoizpena eta, beraz, nekazaritza-errentak nabarmen murrizteko aukera dagoenez, ezinezkoa izango litzateke sistema berezian jarraitzea gaur egun konfiguraturata dagoen moduan, ez bailirateke beteko dagozkion betebeharrak. Hala, erreforma horrek sektorearen bideragarritasun-aukerak hobetuko ditu, eta familiako nekazaritza-ustategiaren osagai guztien ikuspegi globalizatua ezartzen lagunduko du, batez ere emakumeak eta gazteak landa-eremua etorkizunean garatzeko funtsezko oinarri direla azpimarratuz.

COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz Estatuko portuen eremuan izandako inpaktu ekonomikoa arintzeko, ezohiko neurri iragankor batzuk ezartzen dira hari erantzuna emateko.

Errege lege-dekretu honetan jasotako neurriek, alde batetik, portuetan emandako gaikuntza-tituluetan konprometitutako gutxieneko jardueraren balizko murrizketa bati erantzuten diote, eta, zehazki, titulu horietan ezarritako gutxieneko trafikoak aldatzeko aukera emango diete Portu Agintaritzeari, horrek dakartzan ondorioekin. Eta, bestalde, okupazio-tasari eta itsasontziaren tasari buruzko neurri espezifikoak artikulatzen dira.

Bestalde, osasun-larrialdi horren ondorioz sortutako jarduera ekonomikoaren geldiarazteak atzerapenak eragingo ditu parke zientifiko eta teknologikoen aurreikusitako diru-sarreretan, eta, horrenbestez, ezinezkoa izango da Estatuko Administrazio Orokorragi laguntza-deialdien bidez emandako maileguen ondoriozko itzulketa-betebeharrak betetzea; horrek eragina izango du haien epe laburrerako eta luzerako bideragarritasunean.

I+G+B arloan lankidetzaren publiko-pribatua errazteko helburua betetzen jarraitu ahal izan dezaten eta parkeen eta haietan kokatutako erakundeen jarraitutasuna posible izan dadin, xedapen gehigarri bat sartu da; xedapen horretan Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak edo aurreko urteetan ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloan eskumena zuen ministerioak 2000. urtetik aurrera eskusibitatez kudeatutako deialdien arabera parke zientifiko eta teknologikoen erakunde sustatzaileei emandako maileguetatik eratorritako kuotei buruzko neurriak jasotzen dira.

Epe laburrean, 2020ko epemuga duten kuotetarako geroratze bat artikulatzen da, halako moduz non kuota horien ordainketa 2021eko data berera geroratuko baita. Era berean, 2020a baino lehenagoko epemuga duten zor-kuotak birfinantzatea ahalbidetuko duen jarduketa bat aurreikusten da, zorra mailegu horien etorkizuneko urtekoen artean bana dadin, betiere jatorrizko mailegua amortizatzeko gehieneko epea gainditu gabe.

Halaber, xedapen gehigarri bat gehitu da Barcelona Supercomputing Center-Superkonputazio Zentro Nazionala (BSC-SZN) Partzuergoaren zorpetzea ahalbidetzeko, EuroHPC proiektuarekin lotutako nazioarteko konpromisoak bete ahal izateko.

Partzuergo hori titulartasun publikokoa da, eta Estatuko Administrazio Orokorragi, Kataluniako Generalitateak eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoak osatzen dute. Punta-puntako I+G+B zentroa da, eta aktiboki ari da lankidetzan COVID-19 koronabirusak eragindako pandemiaren aurkako ikerketan, bioinformatikari esker birusaren genoma aztertuz. Zentroak, gaur egun, koronabirusaren hedapena eta inpaktua aztertzen laguntzen du, eta, horretarako, ikertzaileak datuak aztertzen ari dira adimen artifizialaren eta hizkuntza naturalaren prozesamenduaren bidez. Erabilitako teknologia MareNostrum 4 superordenagailuaren kalkulu-gaitasunean oinarritzen da, eta tratamenduak bilatzeko erabiltzen den prozesua «docking» edo akoplamendua da; prozesu horretan, birusaren eta txertoak egiteko, antigorputzekin tratamenduak egiteko edo farmakoekin tratamenduak egiteko balia litezkeen molekulen arteko elkarrekintzak simulatzen dira. Duela gutxi, Europako Batzordeak zentro hori hautatu du hurrengo urteetan Batzordeak kofinantzatuko dituen aurre-exaskalako hiru superordenagailuetako baten egoitza izateko.

Horretarako, MareNostrum5 superordenagailu berria erosi beharko du, gutxienez 200 Pflopeko gehieneko errendimendua izango duena (200.000 bilioi eragiketa segundoko), eta gaur egun zentroko superordenagailu nagusia den MareNostrum 4aren nukleoaren errendimendua (13,7 Pflops) bider 18 eginda ateratzen den zenbakiko errendimendua izango du.

Bestalde, xedapen gehigarri bat erantsi da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hamahirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren osagarri gisa; hamahirugarren xedapen gehigarri horrek ikerketaren arloko giza baliabideen deialdi publikoaren finantzaketaren kargura sinatutako lan-kontratuei eta Osasun Sistema Nazionalean kontratatutako langileen integrazioari aplikatzen zaizkien arauak ezartzen zituen. Orain gehitzen den xedapen horrekin bat, aukera emango zaie Espainiako Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Sistemaren parte hartzen duten erakundeei giza baliabideen deialdi publiko zehatzetatik harago sinatu dituzten doktoratu aurreko kontratuak luzatzeko; adibidez, Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo Europako ikerketa-proiektuen esparruan, edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin egindako hitzarmenen edo kontratuen esparruan. Luzapen hori kontratua sinatzen duen erakundearen finantzaketaren kontura



bakarrik egin ahal izango da, dela funts propioekin, dela beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin egindako hitzarmen edo kontratuetatik datozen funtsekin.

## VI

## HERRITARRAK BABESTEKO NEURRIAK

Lehenik eta behin, babes-neurri berriak hartu dira egungo testuinguruan langabezia-prestazioa jasotzeko aukerarik ez duten pertsona guztiei babesa emateko. Zehazki, legezko langabezia-egoeratzat jotzen dira: probaldian egonik martxoaren 9tik azkendu diren kontratuak dituzten langileenak, bai eta martxoaren 1etik aurrera langileen beraien borondatez azkendu diren kontratuei dagozkienak ere, borondatezko azkentzea erabaki badute COVID-19aren ondorioz gauzatzera iritsi ez den lan-eskaintza irmoa izateagatik.

Probaldian egonik kontratua azkentzeari dagokionez, beharrian-egoera hori alarma-egoera deklaratu zen unean eguneratu zen, izan ere, horren eraginez, pertsona horiek ezin izan zuten beste enplegu bat aurkitu; baina gertaera kausatzailea, dauden datuen arabera, lehenago gertatu zen, hilaren 9tik (astelehena) 13ra (osteguna) bitarteko astean, ukitutako pertsonen % 12rentzat baino gehiagorentzat.

Babestu beharreko bigarren taldearentzat, espero zen lan-kontratu berria zapuztearen parekoa da premia-egoera. Hala ere, datuek erakusten dutenez, aurreko kontratua deuseztatzeko borondatezko erabakia martxoaren 1etik aurrera hartu zuten pertsona askok, hots, alarma-egoera deklaratu aurretik.

Gaur egun kalteberenak diren pertsonak babesteak eskatzen du, salbuespen gisa, eta bizi dugun egoera honetan jada ezohikoa dena kontuan hartuta, neurri berri horiek eraikitzeko kontuan hartu beharreko data ez izatea martxoaren 14koa, baizik eta datuek neurriak benetan eraginkorrak direla adierazten dutena; 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik xedatutako gainerako arauetan martxoaren 14a da aintzat hartzen den data.

Bigarrenik, familien likidezia-beharrak arintzen laguntzearen ildoan, pentsio-planetak eskubide finkatuak baliatu ahal izateko kontingentziak zabaltzeari buruzko neurria garatzen da; hain zuzen ere, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan jasotakoa.

Horretarako, eskubide finkatuak baliatzeko baldintzak eta terminoak ezartzen dira, eta, besteak beste, honako hauek arautzen dira: planen erabilgarritasunerako eskubidea ematen duten inguruabarren egiaztapena, inguruabar horiek zein epetan gertatzen diren eta erabil daitekeen gehieneko zenbatekoa.

Luzamendua jasotzen duten tresna publikoen formalizazioa, bai legezkoa, bai alderdiek adostu lezaketena, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. ter artikuluan aurreikusitako muga-zergaren araubidearen mende dago, zeina, funtsean, % 50eko hobaria sartzean datza manu horretan ezarritako baldintzekin bat. Murriztapen hori eskritura publikoa formalizatzeari aplikatzen zaio, bai eta haren erregistro-inskripzioari ere.

Egokitzat jo da onura hori bera zabaltzea martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 21.etik 27.era bitarteko artikuluetan jasotako hipotekaz kanpoko finantzaketa-kontratuen esparruko tresna publikoen formalizazioetara, notario-agiria edo poliza-agiria izan; kasu horretan, hobariak baliokidea izan beharko du.

Era berean, xedapen gehigarri bat sartu da hartzekodunak alde bakarretik egiten duen notario-agiriaren formalizazioa arautzeko; notario-agiri horren bidez, hipotekarekin edo inskribatzeko moduko beste eskubide batekin bermatutako maileguen edo kredituen legezko luzamendutik datorren epe-luzapena formalizatzen da, eta dokumentatutakoa ex lege ezarritako betebeharraren hartzekodunak egiten duen alde bakarreko aitortpena dela justifikatzen da.

Ezin da ahaztu ezinbestekoa dela notario-agiria formalizatzea, agiri publikoa delako, negozioaren funtsezko elementuei dagokienez, balioa duena eta ziurtasuna ematen duena; eta inskriba daitezkeen ondasun edo eskubideen kasuan, formalizatzeak erraztu egiten duelako dagokion Erregistro Publikoan inskribatzea, kasu honetan, Ondasun Higigarrien Erregistroan. Bestalde, Ondasun Higigarrien Erregistroa sartzeko, titulu publikoa behar da,

eta, beraz, ezinbestekoa da notario-agiria formalizatzea. Izan ere, erregistro horren bidez, zordunaren eskubide eta interesak ez ezik, hartzekodunarenak ere babesten dira, eta, oso bereziki, herritar guztienak, erregistroaren osotasun zehatzarekin fede publikoari eutsiz, hau da, inskribatu daitezkeen ondasunen trafiko-segurtasuna ahalbidetzen duen segurtasun juridikoko maila bati eutsiz; horrela, ondasunek trafiko horretan duten balio ekonomikoa mantentzen da, edozein hirugarrenek ondasunaren kargak ezagutzen baititu.

Printzipio horiek zordunaren babes egokiarekin uztartzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea notario-agirian dokumentatzen dena, eta, hala badagokio, Erregistroan sartuko dena, hartzekodunaren alde bakarreko borondate-adierazpena dela; hartzekodunaenez formalizazioaren egilea, bere gain hartuko du muga-zergaren eskubideen kostua, horrela eginez, zordun konkretu baten mesedean ex lege ezarritako betebeharra aitortzen baitu.

Azkenik, kontsumitzaile eta erabiltzaileek kontratu jakin batzuk penalizaziorik gabe suntsiarazteko duten eskubideari dagokionez, idazketa argitu behar da, ahalik eta zorrotasun handienaz zehazteko eskubide horiek noiz sortzen diren.

Hala, ezartzen da kontratua suntsiarazteko eskubidearen «dies a quo» izeneko kontratua betearaztea ezinezko gertatzen den eguna dela, eta «dies ad quem» delakoa, berriz, egun horretatik 14 egunera suertatzen dena. Ildo horretan, ezartzen da kontsumitzaile edo erabiltzaileak kontratua suntsiaraztea eskatzen duenean hasiko dela zenbatzen alderdien arteko akordiorik ez dela lortu ulertzeko 60 eguneko epea, une horretan baitu enpresaburuak gertaeraren berri ofiziala.

Hirugarren xedapen gehigarriak COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako abal-lerroaren gehieneko zenbatekoa finkatzen du; abal-lerro hori pandemiaren inpaktu sozialaren eta ekonomikoaren ondorioz kalteberatasun-egoeran egon eta ohiko etxebizitzaren errentariak direnen finantzaketari estaldura emateko ezarri zen.

Xedapen horrek jasotzen duenari esker, Estatuak % 100ean abalatutako maileguak eman ahal izango zaizkie pandemiaren ondorioz ohiko etxebizitzaren alokairu-errentari aurre egiteko zailtasunak dituzten familiei, onuradunentzat gasturik eta interesik sortu gabe, eta 1.200 milioi euro arte guztira. Helburua da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren agindu bidez zehaztuko diren baldintzak betetzen dituzten eta abalatutako mailegu horiek eskatzen dituzten familia guztiek maileguak eskuratzeko aukera izatea finantza erakunde bidez.

2011ko maiatzaren 11n Lorcan (Murtzia) izandako mugimendu sismikoek eragindako kalteak konpontzeko presako neurriak onartzen dituen maiatzaren 13ko 6/2011 Errege Lege Dekretuak ezartzen zuenez, laguntzak emateko ebazpenean bertan zehaztu behar zen laguntzen xede diren berreraikitze- eta birgaitze-lanak edo kalteak konpontzeko lanak egiteko epea, gehienez ere 24 hilabetekoa eta 12 hilabetekoa, hurrenez hurren.

Hala ere, hasieran aurreikusitako epeak ez dira nahikoak izan, ukitutako administrazioek burutu behar izan duten jarduketa- eta izapidetze-bolumena dela-eta. Hori dela eta, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoari ahalmena ematen zaio, laguntzak emateko eta justifikatzeko prozeduraren erregulazioaren esparruan, epe-luzapena zer kasutan eta zer ondoriotara luza daitezkeen finka dezan, bera baita laguntzak ematen dituen. Horrekin bermatu nahi da herria ia suntsitu zuen gertaera batek kaltetutako udalerrri baten erabateko berreraikitzea. Nolanahi ere, etxebizitza berreraikitze edo birgaitzeko obrak egiteko edo kalteak konpontzeko ezartzen den gehieneko epea ezin izango da izan 2023ko urriaren 31 baino geroagokoa.

Halaber, onartu egiten da Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezarritako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian kotizazioa murriztea 2020. urtean, konkretuki, jarduerarik gabeko garairako eta 2019. urtean benetako 55 lanaldi kotizatu dituzten langileen kasurako. 2019an kolektibo berari dagokionez egin zen bezala, neurri horren bidez, jarduerarik gabe dauden besteren konturako nekazaritzako langileek Gizarte Segurantzako kotizazioa ordaintzeko duten betebeharra betetzea errazten da, kontuan hartuta, bai kotizazio horren urteko igoera, bai nekazaritza-sektorean

aipatutako egoerara igaro diren langileen kopuruaren igoera, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz.

Bestalde, COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 35. artikulua aldatzen da segurtasun juridiko handiagoa emateko bertan arautzen den Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaintzeko epea geroratzeko jarraitu behar den administrazio-prozedurari, hura indarrean sartu zenetik gertatu den eskaera-bolumen handia dela-eta. Alde horretatik, sinplifikatu egiten da geroratzea ebazteko prozedura, horrek barne hartzen duen hil-kopurua gorabehera; irizpide homogeen bat finkatzen da zorra mailaka ordaindiz amortizatzeke epea zehazterakoan, eta prozedura ebatzi arte eskabideak izango duen ondorio juridikoa ezartzen da, errege lege-dekretu honen hirugarren xedapen gehigarrian jasotako administrazio-epeak eteteari dagokionez: 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duena. Azkenik, geroratze hori bateraezina deklaritzen da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikuluan araututako luzamenduarekin.

Ministerio-sailak berregituratzen dituen urtarrilaren 12ko 2/2020 Errege Dekretuan xedatutako eskumen-esleipenaren arabera, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren antolaketak zenbait arau-aldaketa egitea eskatzen du Klase Pasiboen Erregimena aipatutako ministerioan egiazki integratzeko.

Ildo horretan, Klase Pasiboen Araubidea Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioan modu eraginkorrean integratzeko beharrezkoak diren lege-aldaketak egiteko egutegia erabat aldatu da COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz; izan ere, azken bost asteetan Gobernuaren ahaleginak horretan kontzentratu dira. Alde horretatik, arrazoizkoa da pentsatzea arau-aldaketa horiek ezin direla onartu izapidetze parlamentarioaren prozedura arruntaren bidez, horrek harekin ekarriko lukeelako 2/2020 Errege Dekretutik eratorritako antolaketa-egitura ezin gauzatzea legegintza-erreforma horiek onartu arte, eta, horrenbestez, organo eskudunek ezin izango lituzkete garatu aipatutako errege-dekretuaren arabera esleituta dituzten eginkizunak; egoera horrek segurtasun juridikorik eza eta ziurgabetasuna sortuko lituzke arlo batean, hots, pentsioetan, herritar guztientzat bereziki sentikorra den arloan. Arrazoi horrek egoeraren aparteko eta presako beharrezina justifikatzen du, bai eta hartutako neurrien eta egoeraren arteko lotura ere.

Azkenik, zenbait neurri hartu dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei eskualdatzeko jarduera uzteagatik ezohiko prestazioaren kudeaketa, hain zuzen, zegokion epearen barruan mutua hautatu ez zuten autonomoek eskatutako ezohiko prestazioaren kudeaketa. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak xedatzen du jarduera uzteagatik ezohiko prestazio hori bere 17. artikuluan; autonomoek mutua bat hautatu behar zuten urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak 83.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat, eta errege-lege dekretu honen lehenengo xedapen iragankorrak ezarritako epean aurkeztu behar zuten: 28/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Pentsio publikoak handitu eta gizarte-, lan- eta enplegu-alorrean presako beste neurri batzuk hartzeko.

Horretarako, aldatu egiten da 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan 7. apartatua, azken xedapenetako bosgarrenaren bidez; bestalde, bigarren xedapen iragankorrak mutualitate bat hautatzeko jarraitu beharreko prozedura zehazten du, eta, alarma-egoera amaitu eta hiru hilabeteko epean aukera-eskubidea gauzatzen ez bada aplikatu beharreko irizpidea xedatzen du. Neurri horiek presakoak, beharrezkoak eta proportzionatuak dira, entitate kudeatzaileek gaur egun duten karga handia eta kudeaketa-zailtasunak kontuan hartuta.

Bestalde, pandemiak kirol-jarduera profesional eta ez-profesional guztia geldiarazi du, eta kirol-federazioen, txapelketen eta kirolarien finantzaketa-bideak Estatuko dirulaguntzetara mugatu ditu. Testuinguru horretan, futbola, Espainiako kirolaren motor ekonomiko handia baita, funtsezkoa izango da berehala egin beharko den berreraikitzeke etapan, izan ere, Espainiako gainerako sektoreekin alderatuta trakzio-gaitasun handia du.

Joko Olinpikoen atarian kirol federatua, olinpikoa eta paralinpikoa finantzatzen eta egonkortasunez hornitzen laguntzeko, bai eta Espainiako kirola nazioartekotzen laguntzeko ere, futbolak sortutako ikus-entzunezko eskubideen ekarpen solidarioaren bidez, aldatu egiten da Futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziatzko neurriei buruzko apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua, eta futbolak sortutako baliabide pribatuak politika publikoetara transferitzea errazten da. Horretarako, «España Deporte Global» fundazioa, Estatuko sektore publikoaren fundazioa, sortzen da interes orokorreko helburu horiek lortzeko tresna egokiena delakoan, eta era autonomoan eta deszentralizazio funtzionalean jardungo du. Fundazioa Estatuko Administrazio Orokorrari atxikita egongo da, Kirol Kontseilu Gorenaren bidez, eta bertan parte hartuko dute Futbolaren Espainiako Errege Federazioak, Futbol Profesionaleko Ligak eta Espainiako gainerako kirol-federazioek eta lehiaketa ofizial eta ez-ofizialek. Lehiaketen egungo paralsiak, eta, beraz, kirol-jarduerak diru-sarrerarik ez sortzeak, berehala neurriak hartzea eskatzen du kirol-federazioen eta Tokioko Joko Olinpikoetarako prestakuntza-programen iraunkortasuna bermatzeko; horretarako, funtsezkoa da aipatutako fundazioa abian jartzea, apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua aldatzearen ondorioz hari egingo litzaiokeen injekzio ekonomikoa bideratzeko.

Bestalde, nabarmentzekoa da azken xedapenetako laugarrena sartu dela, eta haren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikulua 4. apartatuko d) letra aldatzen dela; aldaketa horren arabera, baldin eta, prozedura ireki sinplifikatuen kasuaren barruan, formulen aplikazio hutsez kuantifikagarri diren irizpideak baliatu badira eskaintzak ebaluatzeko, ez da beharrezkoa izango lizitatzailen gutun-azalak edo artxibo elektronikoak irekitzeko egintza beti jendaurreko ekitaldi publikoan egitea.

Arauren erreformaren xedea da eskaintza ekonomikoa jendaurreko ekitaldian ireki dadin ahalbidetzea, salbu eta lizitazioan bitarteko elektronikoak erabili ahalko direla aurreikusten denean; Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak 157.4 artikuluan hori bera xedatzen du prozedura irekietarako, eta prozedura ireki sinplifikatua haren barruko espezialitatea baino ez da.

Manua aldatzeak ez du soilik esan nahi desiratzekoa zen hobekuntza tekniko bat egin dela, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak hamabosgarren xedapen gehigarrian eskaintzak bitarteko elektronikoaren bidez aurkezteko ezarritako arau orokorrarekin bat datorrena —arau horrek proposamenen osotasuna eta sekretua bermatzen ditu jada, eta formula baten aplikazioaren mendeko alderdiei dagokien dokumentaziorako irispidea ahalbidetzen du—; horrez gain, arazo koiuntural bat konpontzea ahalbidetzen du. Izan ere, Administrazio Publikoaren funtsezko zerbitzuen funtzionamendurako ezinbesteko direlako berrabiarazi diren esleipen-prozeduretan ezin ziren gutun-azalak xedatu bezala ireki COVID-19 pandemiaren hedapena arintzeko hartutako euste-neurrien ondorioz, eta aldaketa eginez arazo hori konpontzen da.

Halaber, bederatzigarren xedapen gehigarri bat ere sartzen da errege lege-dekretu honetan, eta haren bidez, unibertsitate-eremuko deialdi publikoen finantzaketaren kargurako laguntzei aplikatu beharreko berariazko arauak finkatzen dira.

Arau horiekin bermatu nahi da ezen laguntzak jaso zituzten jarduerak burutzeko zailtasunek ez dutela unibertsitateko ikasleak, ikertzaileak eta irakasleak dagokion bezala aritu daitezen; martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen alarma-egoeraren ondoriozko zailtasunak, hain zuzen. Hala, arauz gaitzen da laguntza horien baldintzak aldatzeko aukera, proiektuen jarraitutasuna bermatzeko, osasun-arloarekin lotutako espezialitateei dagozkienak barne.

Azkenik, arau honek «errenta-unibertsitatea maileguak» izeneko itzulketa erraztera bideratutako neurriak ere jasotzen ditu; neurri horiek Zientziaren, teknologiaren, berrikuntzaren eta unibertsitatearen arloetako presako neurrien otsailaren 8ko 3/2019 Errege Lege Dekretuan hartutakoak eguneratzen dituzte. Osasun-krisialdiaren ondorio ekonomikoak direla eta, mailegu-hartzaile jakin batzuek ezin diote aurre egin maileguen itzulketari, beraz, aukera ematen da kontratu-tresna horiek ordeztzeko epe berri baten barruan, aipatutako errege lege-dekretuan ezarritako baldintzei eutsiz.

## VII

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «premia apartekoa eta presazkoa egonez gero», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarrizko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean. Neurri ekonomikoak errege lege-dekretuaren tresna erabiliz hartzearen alde egin du Konstituzio Auzitegiak, betiere esplizituki eta arrazoituta justifikatzen badira, bai premia —halakotzat hartuta abagune ekonomikoak erantzun azkarra eskatzen duela—, bai presa —halakotzat ulertuta dena delako neurria araubide arruntaren bidez izapidetu eta denboran atzeratzeak kalteren bat sor dezakeela—.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, zilegizko tresna da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua honako hau bada, gure Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eskatu duen bezala (otsailaren 4ko 6/1983 epaia, 5. oinarria; urtarrilaren 17ko 11/2002 epaia, 4. oinarria; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 3. oinarria, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 3. oinarria): Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bati aurre egitea, zeinak eskatzen baitu, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, arau bat egitea berehala, legeak Parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko bidean edo presako prozeduran baino epe laburragoan, eta are gehiago prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean. Inolako zalantzarik gabe, gure herrialdeak nazioarteko garrantziko osasun publikoko larrialdia dela-eta aurrean duen egoera eta alarma-egoera deklaratu izana hainbat neurri hartzeko aparteko eta presazko beharrezkoak justifikatzen duten arrazoiak dira.

COVID-19a geldiarazteko eta hari aurrea hartzeko egoera honetan, presazkoa eta beharrezkoa da epidemia eten eta haren hedapena eragozteko osasun publikoa babesteko, eta, aldi berean, salbuespenezko legeriaren bidez, eduki ekonomiko eta sozialeko neurriak hartzea, epidemiak herritarrengan eta bereziki, kolektibo kalteberengan, eta eragile ekonomikoengan —sektore publikoa bera ahaztu gabe— eragiten ari den ondorioei aurre egiteko.

Orobat, eskenatoki berri horren aurrean, denboran zehar luzatu delako eta espektroaren hedaturagatik, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrezkoak judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: ekainaren 7ko 61/2018 epaia, 4. oinarri juridikoa; irailaren 11ko 142/2014 epaia, 3. oinarri juridikoa); erabakiak, ez bairik gabe, jarduteko lehentasun politikoaren antolamendua dakar berekin (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa), segurtasun juridikoa eta osasun publikoa betetzen direla bermatzeko.

Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiak erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi, inolaz ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: ekainaren 7ko 61/2018 epaia, 4. oinarri juridikoa; maiatzaren 8ko 100/2012 epaia, 8. oinarri juridikoa; abenduaren 13ko 237/2012 epaia, 4. oinarri juridikoa; otsailaren 14ko 39/2013 epaia, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako argudio guztiek modu sakon eta arrazoituan justifikatzen dute arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: maiatzaren 31ko 29/1982 epaia, 3. oinarri juridikoa; abenduaren 2ko 111/1983 epaia, 5. oinarri juridikoa; urriaren 20ko 182/1997 epaia, 3. oinarri juridikoa).

Era berean, errege lege-dekretuak ezarritako neurriak ez diete kalterik egiten alderdien konstituzio-eskubideei eta Espainiako Konstituzioaren 33. eta 38. artikuluetan hurrenez hurren jasotako jabetza pribatuaren eta enpresa askearen funtsezko edukia errespetatzen dute. Neurri horiek bat datoz harreman juridiko-pribatuetan Estatuak esku hartzearekin loturik dauden antzeko neurrietarako Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak ezarri izan dituen konstituzionaltasun-parametroekin, izan ere, ez da husten adostutako errentaren eduki ekonomikoa eta ez dakar errentan emandako ondasunaren onura ekonomikoa funtsean galtzea edo hustea (89/1994 KAE). Ildo horretan, eta jurisprudentzia

konstituzionalaren arabera, errentamenduan emandako jabetzaren onura ekonomikoak berekin dakar dagokion errentamendua jasotzea.

Errege lege-dekretua aldaketa horiek ordenamenduan sartzeko tresna gisa erabiltzeari dagokionez, bi gauza hartu behar dira kontuan: errege lege-dekretu bidez arlo batzuk ezin direla arautu eta, gainera, inguruabar jakin batzuk gertatu behar direla errege lege-dekretua erabiltzeko. Arautu ezin diren arloei dagokionez, hona zer ezartzen duen Konstituzioak 86.1 artikuluan: errege lege-dekretuek «ezin eragingo diete, ez Estatuaren funtsezko instituzioen ordenamenduari, ez I. tituluan araututako herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunei, ez autonomia-erkidegoen araubideari, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrari». Errege lege-dekretu honek ez dio eragiten gai horietako bakar bati ere.

Izan ere, arauan sartzan diren xedapenen ez dute ukitzen aurreko elementu horietako bakar bat ere muinean: ez da Estatu funtsezko erakunderik arautzen; ez zaio eragiten herritarren eskubide eta betebeharren izaerari; ez da autonomia-erkidegoen araubidearen gaineko eraginik sortuko, ez baitira autonomia-erkidegoak neurrien hartzaileak; eta hauteskunde-araubidearekin ere ez dago inolako loturarik. Beraz, xedapen horien edukian ez dago ezer haiek onartzea eragozten duenik puntu honetan.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, errege lege-dekretu hau araubide onaren printzipioei egokitzen zaie.

Hartara, premia- eta eraginkortasun-printzipioen arabera, ekimena interes orokorrean oinarritzen da, hau da, COVID-19ak eragindako osasun publikoko krisiaren ondoriozko salbuespenetzko inguruabar sozial eta ekonomikoak erantzutean. Hauxe da, beraz, premia horiek direla eta laguntza emateko neurri gehigarriak hartzeko unea, eta hori lortzeko tresnarik egokiena errege lege-dekretua da.

Araua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin; izan ere, herritar guztien eta, bereziki, langileen ongizatea bermatzeko eta gaur egungo salbuespenetzko egoerak jardura ekonomikoan duen eragina gutxitzeko ezinbesteko erregulazioa jasotzen du.

Era berean, bat dator segurtasun juridikoaren printzipioarekin, eta koherentea da Europar Batasunaren zuzenbidearekin eta gainerako ordenamendu juridikoarekin, gizarte- eta ekonomia-politikaren printzipio gidariei jarraituz.

Gardentasun-printzipioari dagokionez, salbuetsita daude kontsulta publikoko eta entzunaldi eta informazio publikoko izapideak, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikulua arabera.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek ez du ezartzen justifikatuta ez dagoen eta gutxienezkoa eta, nolahi ere, proportzionatua den administrazio-kargarik, egun dagoen egoera berezia eta hartutako neurrien aplikazioan eraginkortasun-printzipioa bermatu beharra dagoela kontuan hartuta.

Beraz, errege lege-dekretu honetako neurri guztiek betetzen dute, oro har eta banan-banan, beren izaera eta xedea ikusirik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua errege lege-dekretu bat onartu ahal izateko eskatzen duen aparteko eta presako beharrezko baldintza.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.1.a, 6.a, 7.a, 8.a, 10.a, 11.a, 13.a, 14.a, 17.a, 18.a, 20.a eta 30.a arauetan xedatutakoaren babesean eman da, arau horiek eskumen eskusiboa ematen baitiote Estuari konstituzio-eskubideak egikaritzearen eta konstituzio-eginbeharrak betetzearen arloetan; aduanen eta muga-zergaren araubidearen eta kanpoko merkataritzaren arloetan; jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan; Ogasun Nagusiaren eta Estatuaren Zorraren arloan; Administrazio Publikoaren araubide juridikoaren oinarrien arloan; kontratu eta emakida administratiboei buruzko oinarritzko legediaren arloan; eta interes orokorreko portuen arloan.

Beraz, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuta, Gobernuko hirugarren presidenteorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroa denaren ekimenez, eta Justiziako ministroak, Ogasuneko ministroak, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroak, Lan eta Gizarte Ekonomiako ministroak, Industria, Merkataritza eta Turismo ministroak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroak,

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak, Kontsumoko ministroak, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazioko ministroak, Zientzia eta Berrikuntzako ministroak, Gizarte Eskubideetako eta Agenda 2030eko ministroak eta Unibertsitateetako ministroak hala proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2020ko apirilaren 21eko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### **Enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen kostuak murrizteko neurriak**

#### 1. artikulua. *Etxebizitza-erabileraz besteko erabilerarako edukitzaile handiekin egindako errentamenduak.*

1. Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera etxebizitza-erabileraz besteko erabilerarako edo industria erabilerako errentamendu-kontratuaren errentaria den pertsona fisiko edo juridikoak, 3. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu, errentatzaileari eskatu ahal izango dio artikuluko honen 2. apartatuan ezarritako luzamendua, errege lege-dekretu hau indarrean sartu eta hilabeteko epean, eta errentatzaileak onartu egin beharko du bi aldeen artean errentaren luzamendurako edo murrizketarako akordiorik jada lortu ez bada; hori horrela izango da, baldin eta errentatzailea etxebizitza-enpresa edo -erakunde publiko bat bada, edo edukitzaile handi bat, halakotzat hartuta 10 hiri-higiezin baino gehiagoren titular den pertsona fisiko edo juridikoa, garaje eta trastelekuak alde batera utzita, edo 1.500 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera eraikia duena.

2. Artikulu honen lehenengo apartatuan aipatutako errentamendu-errentaren ordainketaren luzamendua automatikoki aplikatuko da, eta alarma-egoerak eta haren luzapenek irauten duten denborari eta hurrengo hilekoei —banan banan luzatuko baitira— eragingo die epe hori nahikoa ez bada COVID-19ak eragindako inpaktua arintzeko; baina inola ere ezin izango da lau hilabeteko muga gainditu. Errenta hori errentamendu-errentaren hurrengo hilekotik aurrera atzeratuko da, zigorrik eta interesik sortu gabe, kuotak bi urteko epean zatikatuz. Epe hori lehen aipatutako egoera gainditzen den unetik aurrera zenbatuko da, edo lehen aipatutako lau hilabeteko epea amaitzen denetik aurrera, betiere errentamendu-kontratuaren edo haren edozein luzapenen indarraldiaren barruan.

#### 2. artikulua. *Etxebizitza-erabileraz besteko errentamenduak.*

1. Azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, etxebizitza-erabileraz besteko erabilera edo industria erabilera duen errentamendu-kontratu baten errentaria den pertsona fisiko edo juridikoak 3. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu, eta errentatzailea 1.1 artikuluan zehaztutakoez beste bat bada, errenta-ordainketaren geroratzea eskatu ahal izango dio, hilabeteko epean errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik, baldin eta alderdiek ez badute haien borondatez errenta atzeratzea edo jaistea adostu. Errenta-ordainketaren geroratzea aldi baterakoa eta ohiz kanpokoa izango da.

2. Aurreko apartatuetan aipatutako akordioaren esparruan bakarrik, alderdiek askatasunez baliatu ahal izango dute azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako fidantza, errentamendu-errentaren hileko bat edo batzuk osorik edo zati batean ordaintzeko balio dezakeena. Fidantza osoa edo zati bat baliatuz gero, errentariak baliatutako fidantzaren zenbatekoa berrezarri beharko du urtebeteko epean akordioa egiten denetik zenbatzen hasita, edo, epe hori urtebetetik beherakoa bada, kontratuaren indarraldiari geratzen zaion epean.

3. artikulua. *Autonomo eta enpresa txiki eta ertain diren errentariak, 1. eta 2. artikuluen ondoreetarako.*

Autonomo eta enpresa txiki eta ertain diren errentariak errege lege-dekretu honen 1. eta 2. artikuluetan aurreikusitako neurrietarako irispidea izan ahal izango dute baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Autonomoak garatutako jarduera ekonomikoari atxikitako higiezin baten errentamendu-kontratuaren kasuan:

a) Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen egunean afiliatuta eta alta-egoeran egotea Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian edo, kasua bada, Lanbide Autonomoen Araubide Berezian ordezko mutualitateetako batean. Errege-dekretu horren bidez, alarma-egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko.

b) Haren jarduera etenda geratu izana martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz, edo agintari eskudunak eta ordezko agintari eskudunek aipatutako errege-dekretuaren babesean emandako aginduen ondorioz.

c) Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz jarduera zuzenean eteten ez bada, egiaztatu beharko da geroratzea eskatzen den hilabete naturalaren aurrekoaren fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu dela, hilabete horri dagokion aurreko urteko hiruhilekoaren batezbesteko fakturazioarekin alderatuta.

2. Enpresa txiki edo ertain batek garatutako jarduera ekonomikoari atxikitako higiezin errentamendu-kontratuaren kasuan:

a) Ez gainditzea Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 257.1 artikuluan ezarritako mugak.

b) Haren jarduera etenda geratu izana martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz, edo agintari eskudunak eta ordezko agintari eskudunek aipatutako errege-dekretuaren babesean emandako aginduen ondorioz.

c) Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritakoaren indarrez jarduera zuzenean eteten ez bada, egiaztatu beharko da geroratzea eskatzen den hilabete naturalaren aurrekoaren fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu dela, hilabete horri dagokion aurreko urteko hiruhilekoaren batezbesteko fakturazioarekin alderatuta.

4. artikulua. *Betebeharrak nola egiaztatu.*

Errentariak 3. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen dituela egiaztatuko du errentatzailearen aurrean agiri hauek aurkeztuta:

a) Jardueraren murrizketa, hasiera batean, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da. Bertan, kontabilitateko informazioan eta sarrera eta gastuei buruzko informazioan oinarrituta, hileko fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu dela jakinaraziko da, aurreko urteko hiruhileko bereko hileko batezbesteko fakturazioarekin alderatuta. Nolanahi ere, errentatzaileak hala eskatzen duenean, errentariak bere kontabilitate-liburuak erakutsi beharko dizkio errentatzaileari jardueraren murrizketa egiaztatzeko.

b) Jardueraren etetea egiaztatzeko, interesdunak deklaraturako jarduera-uztean oinarritua Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako ziurtagiria aurkeztuko da.

5. artikulua. *Aldi batez errenta-ordainketaren ezohiko geroratzea bidegabe aplikatzearen ondorioak.*

Aldi batez errenta-ordainketaren ezohiko geroratzearen onuradun izan diren baina halakoak izateko 3. artikulua xedatzen zituen betebeharrak betetzen ez zituzten errentariak izango dira sortutako kalte-galeren erantzule, bai eta salbuespeneko neurri



horiek aplikatzeak eragindako gastu guztien erantzule ere, hargatik eragotzi gabe jokabide hori dela-eta beste orden batean izan daitekeen erantzukizuna.

## II. KAPITULUA

### Enpresen finantzaketa indartzeko neurriak

6. artikulua. *Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutua (EDAI) MP, enpresa-erakunde publikoaren mailegu modalitateko dirulaguntzak.*

1. Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutua (EDAI) MP enpresa-erakunde publikoak erabaki ahalko du mailegu modalitatean formalizatzen diren bere dirulaguntza edo laguntza itzulgarrien programetako onuradunei mailegu horien kuotak geroratzea, haien egoera ekonomiko-finantzarioa kontuan hartuta, eta hurrengo apartatuan xedatutako baldintzekin bat, baldin eta COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia dela-eta jarduerarik gabeko aldiak, edo salmenten edo fakturazioaren bolumenaren murrizketa izan badituzte, eta horrek eragotzi edo zaildu badie laguntza haiek ematek eratorritako ordainketa-betebeharrak betetzea; horretarako, onuradunak eskaera eta justifikatzeko erantzukizuneko adierazpena aurkeztu beharko du. Gainera, geroratze eskaera egiten den momentuan, onuradunak ezin izango dira lehiaketa egoeran egon, egunean egon beharko dute Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez, eta alarma-egoera indarrean jarri zenean itunduta zituzten maileguetatik eratorritako betebeharretan ere egunean egon behar dute. Neurri honetatik kanpo uzten dira administrazio eta erakunde publikoak, Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoak, bai eta haiei lotutako edo haien mendeko organismo eta erakunde publikoak ere.

Ordaindu gabe dauden kuotak geroratu ahal izango dira, baldin eta 2020ko martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean (guztiak barne) mugaeguneratuta badaude. Geroratze hori automatikoki luzatuko da ondoz ondoko kuotetara, interesdunak berriaz kontrarik eskatu ezean, alarma-egoera amaitu eta bi hilabete igaro arte. Geroratutako kuotak kasuan kasuko maileguaren indarraldia amaitu baino lehen ordaindu beharko dira, eta ezin izango dira kapitalizatutzat hartu eta, beraz, ezin izango dituzte interes arrunt berriak sortu.

2. Aurrekoa gorabehera, artikulua honetan araututako geroratzeak emateko, baldintza haiek bete beharko dira:

a) Geroratu beharreko kuotak ez dira aurrez geroratutakoak edo zatitutakoak izango, ez eta EDAIk judizialki edo estrajudizialki erreklamaturakoak ere.

b) Europar Batasuneko araudiak Estatuko laguntzei dagokienez ezarritako laguntzen intentsitate-mugak errespetatuko dira.

c) Interesdunak erantzukizunpeko adierazpena egina beharko du izan, eta bertan adierazi beharko du: geroratzea eskatzen duen unean egoera ekonomiko txarrean dagoela COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz, eta egoera horrek jarduerarik gabeko aldiak edo salmenten edo fakturazioaren bolumenaren murrizketa eragin diola, EDAIrekin hitzartutako maileguaren ondoriozko itzulketa-betebeharrak betetzea eragotzi edo zaildu diona, bai eta konkurtso-egoeran ez dagoela ere.

3. Geroratze horiek emateko prozedura EDAlren Administrazio Kontseiluak zuzenbide pribatuko bere maileguak geroratze ezarritako duena izango da, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa eta artikulua honetan ezarritako baldintzak.

4. Interesdunak datu faltsuak edo ez-osoak emateak, hain zuzen, geroratzea onartzeko oinarri gisa erabili direnak, mailegu osoa aurretiaz mugaeguneratzea ekarriko du, ezertan eragotzi gabe aplikatu daitezkeen beste erantzukizun batzuk.

7. artikulua. *Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak aseguru-erakunde pribatuek beren gain hartutako kreditu-aseguruaren arriskuak berraseguruan onartzeko oinarrizko baldintzak.*

1. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak berraseguruan onartu ahalko ditu kreditu-aseguruetan eta kauzio-aseguruetan jarduteko baimena duten aseguru-erakunde pribatuek beren gain hartutako arriskuak, baldin eta erakunde horiek hala eskatzen badute eta dena delako erakunde publikoarekiko akordioa sinatu edo hari atxikitzen bazaizkio; aurretik, Partzuergoaren Administrazio Kontseiluak hala erabaki beharko du, urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako bere Lege Estatutuaren testu bateginaren 3.2 eta 5.1.h) artikuluetan aurreikusitakoarekin bat. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak onartutako berraseguruaren oinarrizko baldintzak hauek izango dira:

a) Estalduraren modalitateak. Sinatuko den akordioak barne hartuko ditu berraseguruaren merkatuan komunak diren estaldura-modalitateak, hain zuzen ere arlo horietako aseguru-erakundeek aseguraturako enpresei eskaintzen dieten zuzeneko estaldura azkar eta eraginkortasunez osatzea ahalbidetzen dutenak, eta transakzio ekonomikoei segurtasuna ematen laguntzen dutenak.

b) Baldintza ekonomikoak. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalduran aplikatu beharreko baldintza ekonomikoak ezarriko ditu akordioaren epe luzerako finantza-oreka lortzeko helburuarekin, eta, baldintza horien barruan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak egiten dituen kudeaketa-gastuengatik dagokion konpentsazioa jasoko da.

c) Xedea eta indarraldia. Estaldura 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu ahal izango zaie aseguru-eragiketei, baldin eta eragiketa-bolumen esanguratsua izan eta kreditu-arloan baimenduta dauden aseguru-erakundeek egiten badituzte eta aseguratuak Espainian helbideratuta badaude. Indarrean egongo da hura hartzea justifikatu zuten interes orokorreko arrazoiek dirauten bitartean, eta gutxienez bi urtez.

2. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak errege lege-dekretu honen babesean egiten dituen eragiketak gainerako eragiketekiko finantza- eta kontabilitate-bereizketa erabatekoarekin burutuko ditu, eta Estatuak eragiketen oreka tekniko-finantzario egokia mantentzeko egiten dituen ekarpenak txertatuko ditu, hala badagokio; beharrezkoa izanez gero, aurretik, aplikatu beharreko aurrekontu-araudian eskatutako espedienteak izapidetuko ditu Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak. Aurreko ondorioetarako, kontuan hartu beharreko finantza- eta kontabilitate-egoera izango da eragiketak hasten direnetik hiru urteko aldi bat edo, hala badagokio, ondoz ondoko aldiak amaitzean sortutakoa.

Partzuergoak arau honen babesean egiten dituen eragiketei abenduaren 26ko 2013/1997 Errege Dekretuan aurreikusitako hornidura teknikoak eratzeko araubidea aplikatuko zaie, eta, xedapen horren 3. artikuluan 1. apartatuak xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketa horien egonkortze-erreserbari aplikatuko zaion muga izango da apartatu horren a) letran jasotakoaren baliokide dena.

### III. KAPITULUA

#### Neurri fiskalak

8. artikulua. *Balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren Europar Batasunaren barruko ondasunen entregei, inportazioei eta eskuratzei aplikatuko zaiena.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2020ko uztailaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko zerga-tasa aplikatuko zaie errege lege-dekretu honen eranskinean aipatzen diren Europar Batasunaren barruko ondasunen entregei, inportazioei eta eskuratzei, baldin eta horien hartzaileak zuzenbide publikoko erakundeak, klinikak edo ospitaleak, edo gizarte-izaerako erakunde pribatuak badira, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. artikuluan hirugarren

apartatuan aipatzen direnak. Eragiketa horiek salbuetsitako eragiketa gisa dokumentatuko dira fakturan.

9. artikulua. *Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 40.3 artikuluan aurreikusitako ordainketa zatikatuen modalitaterako ezohiko aukera.*

1. Zerga-aitorpen eta -autolikidazio jakin batzuk aurkezteko eta ordaintzeko epea luzatzen duen apirilaren 14ko 14/2020 Errege Lege Dekretuaren artikuluko bakarraren 1. apartatua aplikatu behar zaien sozietateen gaineko zergaren zergadunek, dagokien zergaldia 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi bada, Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 40. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako aukera baliatu ahal izango dute zergaldi horri dagokion likidazioaren konturako lehen ordainketa zatikatua epe zabalduan aurkeztuz; aipatutako errege lege-dekretuaren artikuluko bakarrean xedatzen da epe zabaldua eta aipatutako 3. apartatu horretan ordainketa zatikatuaren modalitatea arautzen da.

2. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek, baldin eta dagokien zergaldia 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi bada, aurreko apartatuan xedatutako ezohiko aukera egiteko eskubidea izan ez badute eta aipatutako zergaldia hasi aurreko 12 hilabeteetako beren negozio zifraren zenbateko garbia 6.000.000 eurotik gorakoa izan ez bada, Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 40. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako aukera baliatu ahal izango dute dagokion epean zergaldi horri dagokion likidazioaren konturako 2020ko urriaren lehen 20 egun naturaletan aurkeztu behar den bigarren ordainketa zatikatua aurkeztuz; aipatutako 3. apartatu horretan ordainketa zatikatuaren modalitatea arautzen da.

2020ko apirileko lehen 20 egun naturaletan egindako ordainketa zatikatua aurreko paragrafoan aurreikusitako aukeraren arabera zehaztutako zergaldi bereko gainerako ordainketa zatikatuen kuotatik kendu ahal izango da.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen VII. tituluko VI. kapituluaren araututako zerga-baterakuntzako araubide berezia aplikatzen duten talde fiskalei.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera aukera baliatzen duen zergaduna ordainketa zatikatuaren modalitate horri lotuta geratuko da, soil-soilik, zergaldi berari dagokion ordainketei dagokienez.

10. artikulua. *2020ko ekitaldian zenbatespen objektiboaren metodoari isilbidez uko egiteak izango dituen denbora-ondorioak mugatzea.*

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta garatzen duten jarduera ekonomikoaren etekin garbia zenbatespen objektiboaren bidez zehazten bada eta 2020ko ekitaldiko lehen hiruhilekoari dagokion ordainketa zatikatua aurkezteko epean hura aplikatzeari uko egiten badiote martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 33. artikuluko 1. apartatuko b) letran aurreikusitako moduan, 2021ean, beren jarduera ekonomikoaren etekin garbia berriz zehaztu ahal izango dute zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera; horretarako, metodo hori aplikatzeko baldintzak bete beharko dituzte eta zenbatespen objektiboaren metodoari uko egiteko hartu zuten erabakia baliogabetu beharko dute zerga horri buruzko erregelamenduak 33. artikuluko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako epean, edo 2021eko ekitaldiko lehen hiruhilekoaren ordainketa zatikatuari dagokion aitortpena epearen barruan aurkeztu beharko dute zenbatespen objektiboaren metodorako xedatutako moduan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoari uko egiteak eta aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorengo baliogabetzeak ondorio berberak izango dituzte balio erantsiaren gaineko zergan edo Kanarietako zeharkako zerga orokorrean ezarritako araubide bereziei dagokienez.

11. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoaren ordainketa zatikatuen kalkulua eta 2020ko zergaldian deklaraturako alarma-egoeraren ondorioz balio erantsiaren gaineko zergaren araubide sinplifikatuaren hiruhileko kuotarena.*

1. Azaroaren 22ko HAC/1164/2019 Aginduaren II. eranskinean jasotako jardura ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren mendeko zergadunek, hain zuzen, jardura horien etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoarekin zehazten dutenek, ez dituzte zenbatuko jardueran aritutako egun natural gisa hiruhileko natural bakoitzean alarma-egoera deklaratu egon den garaiko egunak; ordainketa zatikatuan ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 110 artikuluan 1. apartatuko b) letrak jasotzen dituen oinarri-datuak kontuan hartzen dira. Agindu horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboa egiteko metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua garatzen ditu 2020. urterako.

2. Azaroaren 22ko HAC/1164/2019 Aginduaren II. eranskinean jasotako jardura enpresarial edo profesionalak garatzen dituzten subjektu pasiboek, hain zuzen, 2020an konturako sarrera kalkulatzeko araubide berezi sinplifikatuari atxikita daudenek, ez dituzte zenbatuko jardueran aritutako egun natural gisa hiruhileko natural bakoitzean alarma-egoera deklaratu egon den garaiko egunak; araubide berezi sinplifikatu hori abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 39. artikuluan jasotzen du. Agindu horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboa egiteko metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua garatzen ditu 2020. urterako.

12. artikulua. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 29. artikuluan aipatzen duen finantzaketa-ematearen kasuan zerga-zor jakin batzuetarako aldi exekutiboa ez hastea.*

1. Estatuko Zerga Administrazioaren eskumenen esparruan, zergadun batek Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 62.1 artikuluan aurreikusitako epean aitorpen-likidazioak eta autolikidazioak aurkezten baditu, baina horien ondoriozko zerga-zorrei dagokien diru-sarrera egin gabe, epe exekutiboa ez da abiaraziko, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Zergadunak, lehenengo paragrafoan aipatutako epearen barruan edo epe hori hasi aurretik, finantzaketa eskatu izana aitorpen-likidazio eta autolikidazio horien ondoriozko zerga-zorrek ordaintzeko, gutxienez, zor horien zenbatekoa finantzatzeko; finantzaketa hori jasotzen du COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 29. artikuluan.

b) Zergapekoak finantza-erakundeak emandako ziurtagiri bat aurkeztu izana Zerga Administrazioari, aitorpen-likidazioa edo autolikidazioa aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere bost eguneko epean, zeinetan finantzaketa-eskaera egin duela egiaztatzen baita, zenbatekoa eta horren xede diren zerga-zorrek barne.

c) Finantzaketa-eskaera hori, gutxienez, aipatutako zorren zenbatekoan emana izatea.

d) Zorrek benetan, osorik eta berehala ordaintzea finantzaketa emateko unean. Apartatu honen lehen paragrafoan aipatutako epea amaitu eta hilabeteko epea igarotakoan zorrek ordaindu ez badira, baldintza hori ez dela bete ulertuko da.

Zerrendaturako betekizunen bat betetzen ez bada, epe exekutiboa abiaraziko da 58/2003 Legearen 62.1 artikuluan aurreikusitako epea amaitzean.

2. Zerga-administrazioak, bere helburuak betetzeko, zuzenean eta, hala badagokio, telematikoki eskuratu ahal izango ditu finantzaketa eskatu eta emateari buruzko informazioa

eta espediente osoak, hain zuzen, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 29. artikulua aipatzen duen finantzaketarekin loturikoak.

#### IV. KAPITULUA

##### **Ekonomiaren doikuntza errazteko eta enplegua babesteko neurriak**

13. artikulua. *Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funttsaren erabilera aldi baterako malgutzeko ezohiko neurria, COVID-19aren ondorioak arintzeko.*

1. COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera eta haren luzapenak indarrean dauden bitartean, eta 2020ko abenduaren 31ra arte, Kooperatiben uztailaren 16ko 27/1999 Legearen 56. artikuluan araututako Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funttsa, osorik edo zati batean, honako hauetara bideratu ahal izango da:

a) Finantza-baliabide gisa baliatu ahalko da kooperatibei likidezia emateko, funtzionatzeko halakorik behar badute.

Ondore horietarako, kooperatibak itzuli egin beharko du helburu horretara bideraturako Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funttsa, urtero sortzen diren erabilera askeko emaitzen % 30ekin gutxienez, harik eta funts horrek salbuespenez aplikatzeko erabakia hartzen den unean zuen zenbatekora iritsi arte, eta 10 urteko gehieneko epean.

b) COVID-19aren osasun-krisialdia geldiarazten edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jarduerara bideratu ahalko da, dela ekintza propioen bidez, dela beste erakunde publiko edo pribatu batzuei dohaintzak eginez.

2. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera edo haren edozein luzapen indarrean dagoen bitartean, Hezkuntzarako edo Sustapenerako Funttsaren aplikazioa onesteko eskumena bere gain hartuko du Kontseilu Errektoreak, 1. apartatuan aurreikusitako baldintzetan, baldin eta kooperatiba-sozietateen Batzar Orokorrerako deialdia bitarteko birtualen bidez egin ezin bada bitarteko egokirik edo nahikorik ez dagoelako.

Kontseilu Errektoreak 2020ko abenduaren 31ra arte hartuko du bere gain eskumen hori, salbuespenez, baldin eta kooperatibako bazkideen osasuna babesteko kooperatiba-sozietatearen Batzar Orokorra modu birtualean egiten jarraitu behar bada eta horrela egitea ezinezkoa bada baliabide egokirik edo nahikorik ez dagoelako.

3. Ondore horietarako soilik, ez da aplikatuko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 Legearen 13.3 eta 19.4 artikuluetan xedatutakoa. Beraz, artikulua honen 1. apartatuko a) letraren arabera aplikatu den Kooperatiben Hezkuntzarako eta Sustapenerako Funttsa ez da kooperatibarentzako diru-sarreratzat hartuko.

14. artikulua. *Lan Sozietateen eta Partaidetzako Sozietateen urriaren 14ko 44/2015 Legearen 1.2.b) artikuluan aurreikusitako epea luzatzeko ezohiko neurria.*

1. Ezohiko neurri gisa, 12 hilabetez luzatuko da Lan Sozietateen eta Partaidetzako Sozietateen urriaren 14ko 44/2015 Legearen 1. artikuluan 2. apartatuko b letran xedatutako 36 hilabeteko epea, letra horretan aurreikusitako mugara iristeko.

2. Ezohiko luzapen hori 2017an eraturako lan-sozietateei bakarrik aplikatuko zaie.

15. artikulua. *Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren indarraldia luzatzea eta 6. artikulua aldatzea.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako hamargarrenaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, luzatu egiten da arau horren 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren indarraldia. Artikulu horien edukia indarrean egongo da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako

hamargarrenaren lehen paragrafoan aurreikusitako indarraldia bete ondorengo bi hilabeteetan; martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako 1.17ak aldatu zuen paragrafo hori. Inguruabarrak kontuan hartuta, Gobernuak agindu honetan ezarritakoaren luzapen gehigarriak egin ahal izango ditu.

Halaber, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua izenburua aldatzen da; honako hau izango da hemendik aurrera: «6. artikulua. MECUIDA Plana».

16. artikulua. *Emakida-tituluetan ezarritako gutxieneko jarduerari edo trafikoei buruzko neurriak.*

1. Irailaren 5eko 5/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilar buruzko Legearen testu bateginak esleitutako eskumenekin bat etorriz, Portu Agintaritzek modu arrazoituan murriztu ahal izango dituzte 2020rako eskatutako gutxieneko trafikoak, kasuan kasuko emakida-tituluetan ezarritakoak, baldin eta COVID-19aren krisiaren ondorioz ezinezkoa bada jarduera hori edo konprometitutako gutxieneko trafiko hori lortzea.

2. Emakidadunak eskatuta egingo da jardueraren edo gutxieneko trafikoaren aldaketa, modu arrazoituan eta proportzionatuan, 2019ko ekitaldian egindako trafikoa aintzat hartuta.

3. Nolanahi ere, 2020ko ekitaldian ez dira aplikatuko COVID-19aren krisialdiari egotz dakizkiokeen gutxieneko trafikoak edo jarduera ez betetzeagatiko zigorrak.

17. artikulua. *Okupazio-tasari buruzko neurriak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren jakinarazten diren okupazio-tasaren likidazioetan, 2020ko ekitaldirako, murriztu egin ahal izango da emakida edo baimenen okupazio-tasa, baldin eta COVID-19aren krisialdiaren ondorioz jardueran eragin nabarmen negatiboa izan dutela egiaztatzen bada. Inpaktu horren ebaluazioa kasuz kasu egingo da, azken lau urteetako jarduera oinarritzat hartuta, trafiko-adierazle bati buruzko irizpide objektiboen arabera edo, halakorik ezean, jarduera horri egotz dakizkiokeen diru-sarreraren arabera.

2. Interesdunak eskatuta hasiko da prozedura, eta murriztapenaren munta Portu Agintaritzak bakoitzeko Administrazio Kontseiluak onartuko du, betiere horren egoera ekonomiko-finantzarioa kontuan hartuta; bidaiarien terminalen kasuan, ezin izango da kuota osoaren % 60koa baino handiagoa izan, eta gainerako emakida edo baimenen kasuan, % 20koa baino handiagoa, eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legera edo maila formaleko beste arau batera bildu beharko da.

3. Murriztapena kalkulatzeko, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilar buruzko Legearen testu bateginaren 178. artikulua ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

18. artikulua. *Jarduera-tasari buruzko neurriak.*

1. Portu Agintaritzek, subjektu pasiboak hala eskatuta, eta COVID-19aren krisiak beren jardueran izan duen eragin negatiboa behar bezala justifikatuta, ondorerik gabe utzi ahal izango dute 2020. urterako Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilar buruzko Legearen testu bateginaren 188.b).2.1 artikuluan ezarritako jarduera-tasaren urteko kuota osoaren beheko muga.

2. Portu Agintaritzek, subjektu pasiboak hala eskatuta, eta COVID-19aren krisiak bere jardueran izan duen eragin negatiboa behar bezala justifikatuta, gaikuntza-tituluan ezarritako jarduera-tasaren galdagarritasuna aldatu ahal izango dute 2020rako; hala badagokio, aurreiazko ordainketa kenduko da eta ekitaldiaren amaieran likidatuko da, benetan garatutako jardueraren arabera. Nolanahi ere, emakida-tituluaren edo emandako baimenaren bermea baino ez da eskatuko.

19. artikulua. *Itsasontzi-tasari buruzko neurriak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera eta 2020ko ekitaldian zehar, salbuespen bat ezartzen da itsasontzi-tasarako, baldin eta ontziak amarratuta edo ainguratuta egon behar badu portuko uretan COVID-19aren krisialdia dela-eta eskumena duen agintaritzaren agindu baten ondorioz; salbuespen hori aplikatuko da inguruabar horrek irauten duen bitartean.

2. Ministro Kontseiluak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan eta haren luzapenetan adostutako alarma-egoerak irauten duen bitartean, jarduteari uzten dioten itsas zerbitzuetako ontziei, aktibo ez dauden ontziei dagokienez, luzaroko egonaldiagatik koefizientea aplikatuko zaie itsasontzi-tasan (T-1), portuko uretako egonaldiaren lehen egunetik.

3. Ministro Kontseiluak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan eta haren luzapenetan erabakitako alarma-egoerak irauten duen bitartean, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginaren 197.1.e) 8.a artikuluan aurreikusitako koefizientea 1,16ra murriztuko da portu-zerbitzuak emateko itsasontzietarako.

4. Errege lege-dekretu hau argitaratzen denetik erregistratzen diren eskala guztietarako, eta aipatutako alarma-egoera luzatzen den bitartean, 1,08 euroko balioa ezartzen da itsasontzi-tasaren oinarritzako S zenbatekoarentzat, bidaiarien edo gurpil bidezko kargako itsas zerbitzu erregular bati atxikita dauden ontzientzat izan ezik, kasu horretan balio hori 0,60 eurokoa izango baita.

20. artikulua. *Portu-eremuko zerga-zorrak geroratzea.*

Aldez aurretik eskatuta, Portu Agintaritzek zerga-zorra geroratzeko baimena eman ahal izango dute, martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretua indarrean sartzen denetik 2020ko ekainaren 30era arte (biak barne) sortutako portu-tasen likidazioei dagokienez; errege lege-dekretu horren bidez, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dira.

Geroratzeko baldintzak honako hauek izango dira:

- a) Epea sei hilabetekoa izango da, gehienez.
- b) Ez da berandutze-interesik sortuko, eta geroratzeko ez da bermerik eskatuko.

21. artikulua. *Bidaiarientzako terminalak.*

1. Pertsonen mugikortasuna mugatzen duten xedapenak aplikatzearen eraginez bidaiarien trafikoa nabarmen jaitsi den portu-agintaritzetan –COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia dela-eta bidaiarien gurutzatzeak portuetan sartzea eragotzi eta bidaiarien linea erregularrak murriztu edo kendu baitira–, errege lege-dekretu honen 17. artikuluan aipatzen den okupazio-tasaren kuota osoaren murrizketaren ondorioz diru-sarreretan izan diren jaitsierak irizpide gisa hartuko dira kontuan 2020ko eta 2021eko Portuen arteko Konpentsazio Funtsa banatzerakoan, eta, haiek esleitzeko orduan, lehentasuna emango zaio ekitaldian emaitza negatiboa (banaketa hori kontuan hartu gabe) izan duten Portu Agintaritzei.

2. Larrialdi-zerbitzutzat hartuko da ondorio guztietarako, zerbitzua arautzen duten pleguetan aurreikusitakoarekin bat, itsas zerbitzu erregularrak artatzeko bidaiarientzako terminaletan bidaiariei portu-zerbitzua emateko lizentzia duten titularrek beren giza balia bideak zerbitzuaren eskura jartzea alarma-egoera dagoen bitartean.

## V. KAPITULUA

**Herritarrak babesteko neurriak**

22. artikulua. *Legezko langabezia-egoera, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean gertatutako probaldiaren lan-harremana azkentzeagatik.*

Enpresak lan-harremana azkentzea eskatzen badu, harreman hori probaldian dagoela, 2020ko martxoaren 9tik aurrera, legezko langabezia-egoeratzat hartuko da, aurreko lan-harremana azkentzeko arrazoia edozein dela ere.

Era berean, legezko langabezia-egoeran eta altaren pareko egoeran egongo dira 2020ko martxoaren 1etik aurrera beren borondatez azken lan-harremana ebatzi duten langileak, hain zuzen, beste enpresa batekin lan-kontratu bat sinatzeko konpromiso irmoa izateagatik lan-harremana azkentzea ebatzi dutenak, baldin eta COVID-19aren ondoriozko krisialdia dela-eta enpresa horrek atzera egin badu. Legezko langabezia-egoera egiaztatuko da enpresak langileari idatziz egiten dion komunikazioaren bidez, zeinetan langileari jakinarazten dion ezin duela konprometitutako lan-kontratua sinatu COVID 19aren ondoriozko krisialdia dela-eta.

23. artikulua. *Pentsio-planen salbuespenetzko erabilgarritasunari buruzko arauak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondoriozko egoeretan.*

COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako, arau hauei jarraituko zaie pentsio-planetako eskubide finkatuak erabiltzeko:

1. Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarrian jasotako kasuetan, beren eskubide finkatuak gauzatzeko eskatu ahal izango dute banakako sistemako eta sistema elkartuko pentsio-planetako partaideek, bai eta enplegu-sistemako pentsio-planetako partaideek —ekarpen definitukoak edo mistokoak ekarpen definituko araubidean definitutako kontingentzietarako— ere.

Era berean, enplegu-sistemako pentsio-planetako partaideek, prestazio definituko modalitatekoek edo modalitate mistokoek, eskubide finkatuak erabili ahal izango dituzte prestazio definituko araubidean definitutako edo horri lotutako kontingentzietarako, baldin eta ABEEE baten eraginpean badaude, establezimenduak jendearentzako zabalik egotea eragozten bada edo jarduera bertan behera uzten bada, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz, betiere pentsioetarako konpromisoak ahalbidetzen duenean eta kontrol batzordeak onartutako planeko zehaztapenek aurreikusten dutenean, zehaztapan horietan ezarritako baldintzetan.

2. 11/2020 Errege Lege Dekretuak hogeigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan jasotzen dituen inguruabarrak betetzen direla egiaztatzeko, eskubideak erabiltzea eskatzen duen pentsio-planaren partaideak dokumentu hauek aurkeztuko dizkio pentsio-funtsak kudeatzen dituen erakundeari:

a) Baldin eta partaidea aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten (ABEEE) pean badago COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz, enpresaren ziurtagiria aurkeztuko da, zeinean egiaztatuko baita partaidea ABEEEaren pean dagoela eta horrek partaidearekiko lan-harremanean nolako eraginak izan dituen.

b) Baldin eta partaidea establezimendu baten enpresaburu-titularra bada eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren ondorioz establezimendua jendearentzat zabalik egotea eragotzi bada, partaide horrek deklarazio bat aurkeztu beharko du, zeinean adieraziko baitu, bere erantzukizunpean, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuko b) letran ezarritako baldintzak betetzen dituela eskubide finkatuak gauzatu ahal izateko.

c) Baldin eta langilea, norberaren konturako langilea bada eta alde zurretik Gizarte Segurantzako araubide batean norberaren konturako langile gisa sartuta egon bada, edo



haren ordezeko mutualismo-araubide batean, eta Gobernuak COVID-19ak ezarritako alarma-egoeran zehar jarduera utzi badu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuko du, interesdunak jarduera uzteko deklarazioan oinarrituta egongo baita.

d) Eskatzaileak ezin badu eskatutako dokumentuetako bat aurkeztu, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez ordeztu ahal izango du. Adierazpen horretan berariaz justifikatuko dira COVID-19aren krisiaren ondorioekin lotutako arrazoiak, dokumentu hori aurkeztea eragozten diotenak. Alarma-egoera eta haren luzapenak amaitu ondoren, hilabeteko epea izango du aurkeztu ez dituen dokumentuak aurkezteko.

3. Eskubide finkatuetatik erabilgarri dagoen zenbatekoa partaideak pentsio-funtsen erakunde kudeatzaileari justifikatutakoa izango da, eta gehienez ere hurrengo bi zenbateko hauetatik txikiena izango da, bera titular den pentsio-plan guztietarako:

1.a Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak hogeigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan adierazitako kasuetako zein den aintzat hartuta:

a) partaidea COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondoriozko ABEEE baten eraginaren pean badago: ABEEEa indarrean dagoen bitartean jaso gabeko soldata garbiak, horretarako gehieneko zenbaketa-aldi gisa hartuta alarma-egoeraren indarraldiaren gehi hilabete gehigarri bat; halakoak, betiere, egoeraren aurreko azken nominarekin justifikatuko dira;

b) martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren ondorioz jendearentzat zabalik egon ezin izan den establezimenduaren enpresaburu-titularraren kasuan: jendearentzat zabalik egon ezin izatearen ondorioz jaso ez diren zenbatetsitako diru-sarrera garbiak, hots, alarma-egoera indarrean egon den bitartean, gehi hilabete gehigarri batez, jaso ez diren zenbatetsitako diru-sarrera garbiak; halakoak, betiere, aurreko ekitaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aurreko ekitaldiko aitortpena aurkeztuz justifikatuko dira, eta, hala badagokio, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatua eta azken hiruhilekoari dagozkion balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztuz;

c) norberaren konturako langileen kasuan, aldeztu aurretik Gizarte Segurantzako araubide batean norberaren konturako langile gisa sartuta egon badira, edo haren ordezeko mutualismo-araubide batean, eta Gobernuak ezarritako alarma-egoeraren ondorioz jarduera utzi badute: jarduera uztearen ondorioz jaso ez diren diru-sarrera garbiak, hots, alarma-egoera indarrean egon den bitartean, gehi hilabete gehigarri batez, jaso ez diren diru-sarrera garbiak; halakoak, betiere, aurreko ekitaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aurreko ekitaldiko aitortpena aurkeztuz zenbatetsiko dira, eta, hala badagokio, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatua eta azken hiruhilekoari dagozkion balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztuz.

b) eta c) letren kasuan, eskatzaileak diru-sarreraren murriztapenaren hileko zenbatekoa kuantifikatzen duen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko du.

2.a 2020ko ekitaldian indarrean dagoen 12 ordainsariko urteko IPREM, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa, bider hiru eginda honako hauei dagokien proportzioan hainbanatzearen emaitza: ABEEEaren iraunaldiari, establezimendua jendearentzat zabalik egon ez den aldiari edo jarduera uzteko aldiari, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuko a), b) eta c) letretan aipatzen diren kasuetako bakoitzari dagokionaren arabera. Nolanahi ere, hiru kasuetan, zenbatuko den gehieneko aldia izango da alarma-egoeraren indarraldia gehi beste hilabete bat.

4. Partaidearen erantzukizuna izango da prestazioa eskatzeko beharrezkoa den egitatezko kasua gertatzen dela jasotzeko dokumentazioaren benetakotasuna egiaztatzea, bai eta jaso beharreko zenbatekoaren kuantifikazioa zehaztea ere.

5. Ordainketa partaideak dagozkion egiaztagiri guztiak aurkeztu eta ondorengo zazpi egun balioduneko epean egin beharko da. Enplegu-modalitateko pentsio-planen kasuan, epe hori hogeita hamar egun baliodunera luzatuko da, partaideak egiaztagiri guztiak aurkezten dituenetik kontatzen hasita.

6. Xedapen honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 51. artikuluan aipatzen diren aseguratutako aurreikuspen-planetakoa aseguratuei, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planetakoa aseguratuei eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetako aseguratuei ere aplikatuko zaie. Kasu horietan, ulertuko da aurreko apartatuetan erakunde kudeatzaileei, partaideei eta pentsio-planen zehaztapenei buruz egindako erreferentziak aseguru-erakundeei buruzkoak, aseguratuei edo mutualistei buruzkoak eta aseguru-polizei edo prestazioen araudiari buruzkoak direla, hurrenez hurren. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia alta emateko sistema alternatibo gisa jarduten duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen kasuan, ordezkio eginkizun hori betetzeko erabilitako produktuen edo aseguruaren eskubide ekonomikoak ezin izango dira baliatu.

7. Aurreko apartatuetan, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako eskubide finkatuak likidatzeko salbuespenezko ahalmena gauzatzeko kasuak eta baldintzak zehazten dira. Apartatu horietan aurreikusi gabekoari dagokionez, hogeigarren xedapen gehigarri horrek indarrean jarraituko du.

8. Aurreko apartatuetan adierazitako zenbatekoak eta agiriak errege-dekretu bidez aldatu ahal izango dira, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera.

24. artikulua. *Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ikuskaritzapean dauden pertsonen eta erakundeek informazioa aurkezteko bete behar dituzten zenbait epemuga eta epe luzatzea.*

Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 7. artikuluan aipatzen den gainbegiratze-agintaritza gisa dituen eginkizunak betez, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia gaitzen da, ebazpen bidez eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, epemuga eta epe hauek luzatzea erabaki dezan berariaz aipatzen diren ekitaldietarako:

a) Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduaren eta ikuskapenaren esparruan: 2020an aldizkako ikuskapen-txostena aurkezteari buruzkoak; 2019ko ekitaldiaren itxierari dagokion Finantza Egoeraren eta Kaudimenaren Txostena, bai eta dagokion Berrikusteko Txosten Berezia ere, agintaritza ikuskatzaileari aurkezteari eta argitaratzeari buruzkoak; eta agintaritza ikuskatzaileari urteko informazio kuantitatiboa edo estatistikoa eta kontabilitatekoa aurkezteari buruzkoak (2019ko ekitaldi ekonomikoari dagokion urteko informazioa eta 2020ko ekitaldi ekonomikoko lehenengo hiru hilekoari dagokiona). Esparru horretan, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aldi horietarako ezarri diren ereduak aurkezteko denbora-ordena ere erabaki ahal izango du, Aseguruak eta Erretiro Pentsioak Gainbegiratzeko Europako Agintaritzaren jarraibide eta gomendioei jarraikiz.

b) Pentsio-planak eta -funtsak eta horien erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak antolatu eta gainbegiratzeari dagokionez, agintaritza ikuskatzaileari honako hauek aurkezteari buruzko epemugak eta epeak: erakunde kudeatzailearen eta gordailuzainaren arteko banantze-arauen betetze-mailari buruzko txostena; pentsio-funtsak kudeatzen dituzten erakunde bane-kontrolerako prozeduren eraginkortasunari buruzko txostena; otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako pentsio-plan eta -funtsei buruzko Erregelamenduaren 23. artikuluan aipatzen den finantza-berrikuspen aktuariala; eta Espainian jarduten duten pentsio-funtsen eta haien erakunde kudeatzaileen estatistika, finantza eta kontabilitateko informazioa (gainbegiratzearen ondorioetarako), 2019ko ekitaldi

ekonomikoaren itxierari eta 2020ko ekitaldi ekonomikoaren lehen hiruhilekoari dagozkionak. Esparru horretan, Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak aldi horietarako aurkeztu beharreko ereduen konfigurazioa eta edukia adostu ahal izango ditu.

c) Aseguru- eta berraseguru-banatzailleak antolatu eta gainbegiratzearen esparruan, 2019ko ekitaldi ekonomikoaren itxierari dagokion estatistika- eta kontabilitate-informazioa eta negozio-informazioa agintaritzaren gainbegiratzaillearen aurrean aurkezteari buruzko epemugak eta epeak.

25. artikulua. *Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Nekazaritzako Besteren Konturako Langileentzako Sistema Bereziko jarduerarik gabeko egoeraren kotizazioa.*

2020ko urtarrilaren batetik aurrera, 2019. urtean kotizatutako 55 lanaldi baino gehiago egin ez dituzten langileei ehuneko 19,11ko murriztapena aplikatuko zaie 2020ko jarduerarik gabeko aldietako kuotetan.

26. artikulua. *España Deporte Global sektore publikoaren fundazioa sortzea.*

1. España Deporte Global sektore publikoaren fundazioa sortzen da, irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa, nortasun juridikoarekin eta gaitasun osoarekin, eta bere ondareak modu iraunkorrean egongo dira lotuta bere helburuak betetzeari, legetan eta haren estatutuetan ezarritako mugak baino ez dituela. Estatuko Administrazio Orokorri atxikita dago, Kirol Kontseilu Gorena erakunde autonomoaren bidez.

2. España Deporte Global sektore publikoaren fundazioak arau izango ditu bere estatutuak, bai eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean, Fundazioen abenduaren 26ko 50/2002 Legean, fundazioen arloan aplikatu beharreko legeria autonomikoan eta ordenamendu juridiko pribatuan xedatutakoa ere, salbu eta aurrekontuari, kontabilitateari, finantza- eta ekonomia-kontrolari eta sektore publikoko kontratazioari buruzko araudia aplikatzekoa zaien gaitetan.

3. España Deporte Global sektore publikoaren fundazioaren helburua da kirol federatua, olinpikoa eta paralinpikoa sustatzea, bultzatzea eta zabaltzea, bai eta Espainiako kirola nazioartekotzea ere.

Helburu horiek betetzeko, España Deporte Global sektore publikoaren fundazioak, Kirol Kontseilu Gorenaren berezko eginkizunetan laguntze aldera, bere estatutuetan ezarritako jarduerak gauzatu ditu, eta horien artean nahitaez egongo dira honako hauek:

- a) Kirol federatuaren esparruko lehen tasunak analizatu, aztertu eta identifikatzea.
- b) Espainiako kirol-eredua nazioan eta nazioartean hedatzeko eta sustatzeko proiektuak diseinatzea.
- c) Bere helburuak betetzeko jasotako funtsak kudeatzea eta justifikatzea, eta lortutako emaitzak etengabe aztertzea, fundazioaren helburuak hobeto lortzea ahalbidetuko duten hobekuntza-arloak ezartzeko.
- d) Futbolaz bestelako kirol-federazioen eta lehiaketen ikus-entzunezko eskubideak kudeatzea eta merkaturatzea, haiek beren kabuz hartu nahi ez badituzte.

Inola ere ezin izango da ahal publikoez baliatu.

4. Patronatua fundazioaren gobernu eta legezko ordezkarietako organoa da, eta haren lehendakaria Kirol Kontseilu Gorena erakunde autonomoaren burua da.

Estatutuetan ezarritakoaren arabera, patronatuko kide izango dira, besteak beste, Espainiako Futboleko Errege Federazioa, Futbol Liga Profesionala («LaLiga»), eta Espainiako gainerako kirol-federazioak eta lehiaketa ofizialak eta ez-ofizialak.

5. España Deporte Global sektore publikoaren fundazioa izango da, bere funtzionamendurako eskatzen diren baldintza guztiak bete ondoren, futbolaz bestelako kirol-federazioen eta lehiaketen ikus-entzunezko eskubideen kudeaketa eta merkaturatzea bere gain hartu ahal izango duen erakunde bakarra, haiek kudeaketa eta merkaturatze horiek beren kabuz hartu nahi ez badituzte.

6. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 133. artikulua 2. apartatua xedatutakoa ez zaio aplikatuko España Deporte Global sektore publikoaren fundazioaren sorrerari.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan jasotzen diren zenbait zerga-xedapenen indarraldi-epeak luzatzea; martxoaren 17ko Errege Lege Dekretuaren bidez, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriak hartu ziren, eta, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, berriz, COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezarri ziren.*

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 33. artikuluan 2020ko apirilaren 30ari eta maiatzaren 20ari buruz egindako denbora-aipamenak, bai eta COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen zituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren zortzigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarrietan egindakoak ere, 2020ko maiatzaren 30ari buruz eginak direla ulertuko da.

Bigarren xedapen gehigarria. *Epeak etetea Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduera-eremuan.*

1. COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratuak alarma-egoeraren indarraldia eta haren balizko luzapenak ez dira zenbatuko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren egiaztapen-jarduketan iraupen-epeen ondorioetarako. Era berean, aldi hori ez da zenbatuko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Sistemako funtzionarioek edozein errekerimendu betetzeko ezarritako epeen iraupenean.

Aurreko paragrafoan ezarritakotik salbuetsita daude egiaztapen-jarduerak eta alarma-egoera justifikatzen duten egitateekin lotura estua duten egoeretatik eratorritako geldiarazteko errekerimenduak eta aginduak, edo larritasunagatik edo premiagatik interes orokorra babesteko ezinbestekoak direnak; kasu horretan, behar bezala arrazoituko da hori, eta interesdunari horren berri emango zaio.

2. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratuak alarma-egoeraren eta haren luzapenen indarraldian, etenda geratzen dira lan-arloko eta Gizarte Segurantzako araudia betetzeari dagokionez erantzukizunak eskatzeko ekintzen preskripzio-epeak.

3. Lan-arloko arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko prozedurei eta Gizarte Segurantzaren kuotak likidatzeko espedientei buruzko Erregelamendu Orokorrean araututako prozedurei buruzko epe guztiak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako administrazio-epeen etenduraren eraginpean daude. Maiatzaren 14ko 928/1998 Errege Dekretuaz onartu zen erregelamendu hori.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden errentarien finantzaketa Estatuaren kontura estaltzeko abalen lerroaren gehieneko muga; COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan onartu zen finantzaketa hori.*

COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden errentarien finantzaketa Estatuaren kontura estaltzeko abalen lerroari dagokionez —martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan onartu baitzen—, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak 1.200 milioi euroko abalak eman ahal izango ditu gehienez.

Laugarren xedapen gehigarria. *Lorcan (Murtzia) 2011n izandako lurrikaren ondoren etxebizitzak berreraiki edo zaharberritzeko edo eragindako kalteak konpontzeko laguntzetarako hasiera batean emandako exekuzio-epea luzatzea.*

2011ko maiatzaren 11n Lorcan izandako mugimendu sismikoen ondoren etxebizitzak berreraiki edo zaharberritzeko edo eragindako kalteak konpontzeko obren exekuzioak maiatzaren 13ko 6/2011 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan, hurrenez hurren, ezarritako 24 eta 12 hilabeteko epeak gainditzen baditu, emandako epea luzatzeko eskatu ahal izango dute interesdunek, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoak laguntza horiek arautzeko araudian zehazten dituen kasuetan eta ondorioekin; honako hauen arabera dagozkion eskumenekin bat arautu ditu laguntzak erkidego horrek: maiatzaren 13ko 6/2011 Errege Lege Dekretuaren 8. artikulua, Lorcan lurrikarak kaltetu zituenentzako laguntzen ordainketa arintzeko, eraitsitako higiezinak berreraikitze eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko neurriak onartzen dituen martxoaren 30eko 11/2012 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua eta horiek gauzatzeko sinatutako hitzarmenak.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Laguntza juridikoa.*

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen kudeaketa bere gain hartu duenez, bai eta ondore horretarako Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari esleitzen zaizkion eginkizunak ere, beharrezkoa da Gizarte Segurantzaren Administrazioako Zerbitzu Juridikoak Zuzendaritza Nagusi honi laguntza juridikoa eman diezaiola.

Horretarako, Gizarte Segurantzaren Administrazioako Zerbitzu Juridikoak Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari eman beharreko laguntza juridikoak barne hartuko ditu klase pasiboen eta bestelako prestazioen arloko aholkularitza, ordezkaritza eta epaiketako defentsa, bai eta laguntza juridikoa ematea ere Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen interesei eragiten dieten gaitan, Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako Estatu Idazkaritzak zehaztutako moduan.

Seigarren xedapen gehigarria. *Klase Pasiboen Araubidearen araudia egokitzea.*

Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzeko Errege Dekretuan zehazten den egunean jarriko da indarrean.

1. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari egindako aipamentzat hartuko da Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Langileen Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiari edo Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusiari errege-dekretu honen I. tituluaren egindako aipamen oro: 851/1992 Errege Dekretua, uztailaren 10ekoa, Terrorismo-ekintzak direla-eta Estatuko Klase Pasiboen Araubidean jasotako aparteko pentsio jakin batzuk arautzen dituena.

2. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari egindako aipamentzat hartuko da Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Langileen Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiari edo Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusiari errege-dekretu honen I. tituluaren egindako aipamen oro: 710/2009 Errege-Dekretua, apirilaren 17koa, zeinaren bidez garatzen baitira 2009. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 2/2008 Legeak, klase pasiboen pentsioen eta kalte-ordain sozial jakin batzuen arloan aurreikusitakoak; hori, halere, ez da eragozpena izango prestazioak izapidetzeko Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusiak eman beharreko txostenetarako, apirilaren 17ko 710/2009 Errege Dekretuaren 13. artikuluekin bat etorritik.

3. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari egindako aipamentzat hartuko da Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Langileen Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiari edo Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusiari errege-dekretu honetan egindako aipamen oro: 1413/2018 Errege Dekretua, abenduaren 2koa, zeinaren bidez garatzen baitira 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak Estatuko klase pasiboen araubideko alarguntza-pentsioen arloan aurreikusitakoak.

4. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari egindako aipamentzat hartuko da Langileen Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiari buruz bi errege-dekretu hauetan egindako aipamen oro: 1678/1987 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Klase Pasiboetako Gaitutako Lanbidea arautzen duena, Klase Pasiboen arloko helburu administratiboekin eta interes orokorrekarekin lotutako alderdietan, izan ere, aplikatzekoa izaten jarraitzen du 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legearen laugarren xedapen iragankorren arabera; 1729/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Klase Pasiboetako Gaitutakoei aplikatu beharreko Zehapen-prozedurari buruzkoa.

5. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari egindako aipamentzat hartuko da Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioko Langileen Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiari edo Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusiari buruz errege-dekretu honen 6. artikuluan egindako aipamen oro: 2072/1999 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Europako Erkidegoetako langileen gizarte-aurreikuspeneko sistemaren eta Espainiako gizarte-aurreikuspeneko araubide publikoen arteko eskubideen elkarrekiko transferentzietan buruzkoa.

6. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari egindako aipamentzat hartuko da, prestazioen kudeaketaren arloan, Klase Pasiboen Araubidea erregulatzen duten arauak Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Langileen Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiari edo Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusiari egindako aipamen oro, ezertan eragotzi gabe Osasun Militarrak baldintza psikofisiko nahikorik ez izateari eta horrek zerbitzuarekin izan dezakeen loturari buruzko espedienteetan azterketa medikoak egiteko, hala badagokio, atentatu terroristatzat hartzeko, eta desgaitasun-maila deklaratzeko dituen eskumenak. Osasun Militarraren irizpenak nahitaezkoak eta lotesleak izango dira.

Defentsa Ministerioko organo eskudunei dagokie langile militarren baldintza psikofisiko nahikorik ez izateari buruzko espedienteak ebaztea eta dagokion erretiro-deklarazioa egitea, konpromisoa edo zenbait destinarako mugak —zerbitzu-egintzaren edo atentatu terroristaren ondoriozkoak barne— dituen baliagarritasuna ebaztea, bai eta langile militarren erretiroa deklaratzeko ere, indarrean dagoen legeria militarren arabera.

Halaber, aurrekontuei buruzko erreferentzia oro Gizarte Segurantzaren aurrekontuei egindakotzat joko da.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Klase Pasiboen Araubidearen kudeaketari egotz dakizkiokeen gastuen Estatuko finantzaketa.*

Estatuak Gizarte Segurantzari transferituko dio Estatuko Klase Pasiboen Araubidea kudeatzeagatik honako hauek egiten duten gastu osoa finantzatzeko behar den zenbatekoa: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailtza Nagusiak, Gizarte Segurantzaren Informatika Kudeaketak eta Gizarte Segurantzaren Administrazioako Zerbitzu Juridikoak.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak prestazio publiko jakin batzuk kudeatzea.*

Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren oinarriko egitura organikoa garatzen duen errege-dekretuan zehaztuko den egunetik bertatik, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartuko ditu eskumen hauek ondoren zerrendatuko diren arauetan xedatutako prestazioetan, hargatik eragotzi gabe administrazioko beste organo batzuei prestazio horien kudeaketa egokirako beharrezko izapideak burutzearekin loturik dagokien eskumena:

1. Terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsio batzuk arautzen dituen uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretuaren II. tituluan jasotakoak.

2. Maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege Dekretuaren 7.1.b) artikuluan jasotzen diren prestazioak ordaintzeko betebeharrak eta proposamena aitortzea. Errege lege-dekretu horren bidez, osasun sistema publikoaren jarduketan ondorioz giza immunoeskasiaren birusa duten pertsonen laguntzak ematen zaizkie.

3. Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak laguntzeko eta sorosteko abenduaren 11ko 35/1995 Legean jasotako prestazioak kudeatzea.

4. Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Funtsaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuan araututako prestazioak kudeatzea.

5. Gerra zibilean edo gerra zibilaren ondorioz hildako espainiarren alargunen eta gainerako senideen alde pentsioak, laguntza mediko-farmazeutikoa eta gizarte-laguntza aitortzeari buruzko irailaren 18ko 5/1979 Legean araututako prestazioak kudeatzea.

6. Errepublikaren eremuko borrokalari ohi elbarrientzako pentsioei buruzko ekainaren 26ko 35/1980 Legean araututako prestazioen kudeaketa.

7. Gerra zibilean Indar Armatueta, Ordena Publikoko Indarren eta Errepublikako Mugazainen Kidegoko kide izan zirenen eskubideak eta emandako zerbitzuak aitortzeko urriaren 22ko 37/1984 Legean araututako prestazioak kudeatzea.

8. Iragandako gerraren ondorioz mutilazioren bat pairatu eta aberriaren aldeko gerrako elbarri zaldunen kidegoan sartu ezin izan ziren espainiarren aldeko pentsioak arautzen dituen martxoaren 5eko 670/1976 Dekretuan araututako prestazioak kudeatzea.

9. Gerrako Elbarri Zibilen Pentsioen martxoaren 29ko 6/1982 Legean araututako prestazioak kudeatzea.

10. Pentsioak ordaintzeko betebeharra eta proposamena onartzea, hain zuzen ere, arau hau indarrean jarri arte Langile Kostuen Zuzendaritza Nagusiak 07 atalaren kargura egin dituen pentsioak ordaintzeko betebeharra eta proposamena.

11. Terrorismoaren ondoriozko aparteko pentsioen kostu-kapitala ordaintzeko betebeharra eta proposamena aitortzea; Gizarte Segurantzaren sistemaren barruan terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsioak ematea arautzen duen abenduaren 7ko 1576/1990 Errege Dekretuan aurreikusitako pentsioen kostu-kapitala.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Unibertsitate-eremuko* deialdi publikoen finantzaketaren kargurako laguntzei aplikatzen diren arauak

1. Unibertsitateko ikasleei, ikertzaileei edo/eta unibertsitateko irakasleei zuzendutako Unibertsitateetako Ministerioaren deialdietatik eratorritako finantzaketaren kargurako laguntzen onuradunek, aldez aurretik justifikatuta, beren laguntzen baldintzetan egin beharreko aldaketak eskatu ahal izango dituzte, baldin eta laguntza horien gauzatzea Espainian nahiz helmugako herrialdeetan COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz hartutako neurrien ondorioz kaltetu badira.

2. Aldaketa horietatik eratorritako kostuak deialdia egin duen organoaren aurrekontuen kontura finantzatuko dira. Baimena ematen zaie deialdia egin duten goi-organoetako titularrei eta zuzendaritza-organoetako titularrei finantzaketa hori lortzeko beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egiteko, bai eta dagozkien gastu-espeditentak berriro urtekotzeko ere.

3. Deialdia egin duten organoek behar diren ebazpenak eman ahal izango dituzte errege lege-dekretu honetan jasotako laguntza-deialdietan aurreikusitako baldintzak egokitzeko, eta ebazpen horien bidez aldatu ahal izango dituzte laguntzak gauzatzeko eta justifikatzeko baldintzak eta epeak, bai eta laguntzen modalitate desberdinetako garapen egokiari eragin diezaioketen gainerako gaiak eta Espainian nahiz xede-herrialdeetan pandemia dela-eta hartutako neurrien eta xedapen honetan ezarritakoaren aplikazioaren ondoriozko beste gastu kontzeptu batzuk ere.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen mutua aukeratzea, hasiera batean erakunde kudeatzaile bat hautatu zuten Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko langileek egindako aukera.*

Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian aplikazio-eremuan dauden langileek urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege

Orokorren testu bateginaren 83.1.b) artikuluan aurreikusitako aukera baliatu ez badute, ezta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua 7. apartatua xedatutakoaren arabera mutua bat aukeratzearena ere, arestian aipatutako 83.1.b) artikuluan xedatutakoa bete beharko dute, hau da, mutua bat aukeratu beharko dute eta dagokion atxikitze-agiria formalizatu alarma-egoera amaitzen denetik hiru hilabeteko epean. Aukera horrek ondorioak izango ditu hiru hilabeteko epea amaitu eta hurrengo bigarren hilabeteko lehen egunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako aukera gauzatzeko epea igaro eta langileak ez badu dagokion atxikitze-agiria formalizatu, ulertuko da interesduna bizi den probintzian langile autonomo elkartu gehien dituen mutua aukeratu duela; atxikipena automatikoki egingo da, eta ondorioak izango ditu aurreko paragrafoan aipatutako hiru hilabeteko epea amaitu eta hurrengo bigarren hilabeteko lehen egunetik aurrera. Atxikipen hori gauzatzeko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak mutua horri jakinaraziko dizkio langile autonomoaren datuak, behar-beharrezkoak direnak.

Gizarte Segurantzaren mutua laguntzaileak atxikimendua jakinaraziko dio langileari, eta berariaz adieraziko dio zein egunetan izango dituen ondorioak eta zenbateko estaldura izango duten babestutako kontingentziek.

*Hamaikagarren xedapen gehigarria. Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko langileek Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua baten aldeko hautuak jarduera uzteagatiko ezohiko prestaziorako eskubidea sortzeko dituen ondorioak. Prestazio hori COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua arautzen du.*

Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko langileek Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua bat aukeratzeko badute COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan araututako jarduera uzteagatiko ezohiko prestaziorako eskubidea sortzeko, langile autonomoak aukeratu duen mutua laguntzaileak bere gain hartuko ditu langilearen babesa eta jarduera uzteagatiko ezohiko prestazioa ordaintzea, bai eta estaldura zer kontingentzia aintzat hartuta formalizatu den, kontingentzia horietatik eratorritako gainerako prestazioak ere, aldi baterako ezintasunagatiko sorospena barne, baldin eta baja medikoa mutua horrekin babesa formalizatu ondoren ematen bada eta langilea erakunde kudeatzaileak estalitako aurreko aldi baterako ezintasun-prozesu baten ondorioz berriz gaixotzen bada.

Lehenengo paragrafoan aipatzen den babesa formalizatzeko unean abian diren prozesuetatik eratorritako prestazio ekonomikoak ordaintzeko erantzukizuna erakunde kudeatzaileari egokituko zaio aurrerantzean ere.

*Hamabigarren xedapen gehigarria. Parke zientifiko eta teknologikoetako jardueren finantza-laguntza ematea.*

1. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak edo lehenagoko urteetan ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloko ministerio eskudunak 2000. urtetik aurrera eskusibitatez kudeatutako deialdien ondorioz parke zientifiko eta teknologikoak sustatzen dituzten erakundeei emandako maileguetatik edo aurrerakinetatik eratorri eta 2020an mugaeguneratzen diren kuotak 2021. urteko data berera atzeratuko dira.

2. Erakunde horiek, halaber, 2020a baino lehenagoko urteetan epemuga duten kuotak, aurreko apartatua aipatutako maileguetatik edo aurrerakinetatik eratorritakoak, birfinantzatzeko eskatu ahal izango diote Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari, horien barne direla 2011tik 2015era bitarteko urteetarako eta 2017. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeen eta Zientziaren, teknologiaren, berrikuntzaren eta unibertsitatearen arloetako presako neurrien otsailaren 8ko 3/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera emandako geroratzen ondoriozko kuotak.



Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak kudeatutako ordainketa-epe exekutiboan dauden kuotak birfinantzatzea erabakitzen bada, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak kargua ezerezteko agindua emango du, kuota horien gaineko prozedura exekutiboak aurrera jarrai ez dezan.

3. Kuotak birfinantzatzeak berekin ekarriko du beste mailegu bat eratzea, baldintza hauen arabera:

a) Printzipala birfinantzatu beharreko kuoten batura izango da, kuota bakoitzaren jatorrizko mailegua ematean aplikatu zen interes-tasaren arabera kapitalizatuta.

b) Jatorrizko maileguen gehieneko epemuga ez da aldatuko, baina geroratutako kuotak zatikatu ahal izango dira. Hala ere, maileguen kuoten epemuga 2020an edo 2021ean amaitzen bada, 2022ra arte birfinantzatu ahal izango dira.

c) Birfinantzatzen diren kuotek Estatuak antzeko epemuga duten tresnetan jaulkitako zorraren interes-tasa sortuko dute. Zor horren interes-tasa negatiboa bada, mailegu berriak zero interes-tasa izango du, eta ez du interesik sortuko, ez Estatuaren alde, ez luzamenduaren eskatzaileen alde.

d) Eratzen den mailegu berriaren zenbatekoa erabili beharko da Estatu Administrazio Orokorren kontabilitatean birfinantzatzen diren eta iraungita dauden kuotekin eta birfinantzatzen den gainerako zorrarekin loturik aintzatetsita dauden eskubideak kitatzeko.

e) Birfinantzaketa horri jatorrizko maileguan eratutako bermeak aplikatuko zaizkio.

f) Nolanahi ere, Europar Batasunaren araudiak Estatuaren laguntzen arloan baimentzen dituen laguntza-intentsitatearen mugak errespetatuko dira.

4. Zientziako eta Berrikuntzako Ministerioaren titularraren agindu baten bidez, beharrezkoak diren jarraibideak eman ahal izango dira xedapen gehigarri honetan ezarritakoa garatu eta betetzeko.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Bartzelona Supercomputing Center–Superkonputazioaren Zentro Nazionala Partzuergoa (BSC-SZN) zorpetzeko baimena.*

Aurrekontu Orokorren azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 111.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Bartzelona Supercomputing Center-Superkonputazio Zentro Nazionala (BSC-SZN) Partzuergoaren zorpetzea baimentzen da 2020ko ekitaldirako, 47.888.247,62 euroko gehieneko zenbatekoarekin. Interes-tasa izango da ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politikaren maileguei eta aurrerakinei aplikatzen zaiena, Estatu Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoaren arabera.

Hamalagarren xedapen gehigarria. *Ikerkuntzaren arloan prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileentzako doktoratu aurreko kontratuei aplikatu beharreko arauak.*

1. Prestakuntzan diharduten ikertzaileentzako doktoratu aurreko kontratuak sinatu dituzten erakundeek kontratu horien indarraldia luzatu ahaliko dute xedapen gehigarri honetan aurreikusitako baldintzekin bat —kontratuaren azken hamabi hilabeteen barruan daudenean baino ez—, baldin eta baliatu duten finantzaketa ez badator Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Estatu Sistemaren finantzaketa-eragileek Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 12ko 14/2011 Legearen esparruan giza baliabideetarako egindako deialdietatik.

2. Kontratuen luzapena adostu ahal izango da alarma-egoerak irauten duen denborarako eta COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-krisia dela-eta egoera hori luza daitekeen aldirako, betiere COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan aurreikusitako baldintzetan. Justifikatutako arrazoiengatik, alarma-egoerak irauten duen denborarako luzatu diren kontratuak beste hiru hilabetez luzatu ahal izango dira.

3. Nolanahi ere, lan-kontratuaren eta haren balizko luzapenaren guztizko iraupenak ekainaren 1eko 14/2011 Legean aurreikusitako gehieneko denbora-mugak gainditu ahal izango ditu.

4. Lan-kontratuak luzatzeko, erakunde kontratatzailearen eta langilearen arteko akordioa beharko da, kontratua amaitzeko aurreikusitako data baino lehenagokoa.

5. Luzapen horren ondoriozko lan- eta gizarte-kostuak lan-kontratua sinatu duen erakundearen aurrekontuen kontura finantzatu dira. Erakunde horietako goi-organoetako titularrei eta zuzendari, presidente eta zuzendariei baimena ematen zaie finantzaketa hori lortzeko beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egiteko, kanpo-finantzaketaren kargura egiten direnak barne, bai eta dagozkien gastu-espeditenteak berriro urtekotzeko ere.

6. Kontratuak sinatzen dituzten erakundeek behar diren ebazpenak eman ahal izango dituzte aurreikuspen horiek beren jardun-eremuetan egokitzeko, bai eta kudeaketa egokirako beharrezkoak diren beste gai batzuk aurreikusi ere.

7. Apartatu honetan jasotako aurreikuspenak 2020ko apirilaren 2tik aurrera amaitzen diren doktoratu aurreko kontratuei aplikatu ahal izango zaizkie.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Hartzekodunak alde bakarretik egitea notario aurrean hipotekarekin edo inskribatzeko moduko beste eskubide batekin bermatutako maileguen edo kredituen legezko luzamendutik eratorritako epearen luzapena formalizatzeko notario-tresnak.*

1. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 13.3 artikuluan aurreikusitako hipoteka-zorren hiru hilabeteko etetearen aplikazioa ez da egongo Higiezinaren Kredituko Kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legean xedatutakoaren mende.

2. Erakunde hartzekodunaren aldebakarreko betebeharra izango da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 13.3 artikuluan aurreikusitako etetearen aitortpena eskritura publikoan jasotzea, hasierako epearen luzapena Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izateko.

3. Era berean, erakunde hartzekodunaren aldebakarreko betebeharra izango da poliza edo eskritura publikoaren formalizazioa sustatzea, bai eta, hala badagokio, Ondasun Higigarrien Erregistroko inskripzioa ere, baldin eta kreditua edo mailegua hipoteka ez den inskribatzeko moduko eskubide baten bidez bermatuta badago edo Erregistroan badago. Poliza edo eskritura horretan, COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak 24.2 artikulua hipoteka-bermerik gabeko kreditu edo maileguen kontratu-betebeharrak eten direla jasoko da.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 13.3 artikuluan edo martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 24.2 artikuluan babespean aurkeztutako edozein luzamendu-eskaerari aplikatuko zaio, nahiz eta hartzekodunaren eskaera edo erakunde hartzekodunak hura onartzea errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik gertatu.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Zerga-zor jakin batzuetarako epe exekutiboa ez hastea COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 29. artikuluan aipatzen duen finantzaketa-ematearen kasuan.*

Aitorpen-likidazioei eta autolikidazioei aplikatuko zaie 12. artikuluan xedatutakoa, baldin eta haiek aurkezteko epea 2020ko apirilaren 20tik maiatzaren 30era bitartean amaitzen bada.

Aurreko paragrafoan jaso eta errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik aurkeztu diren aitorpen-likidazioetatik eta autolikidazioetatik eratorritako zerga-zorren kasuan, baldin eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 161. artikuluan xedatutakoaren arabera epe exekutiboa hasita badute, borondatezko epean daudela ulertuko da inguruabar hauek batera gertatzen direnean:

a) Zergapekoak, gehienez ere bost eguneko epean, errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, finantza-erakundeak emandako

ziurtagiria aurkezten dionean Zerga Administrazioari, zeinetan egiaztatzen baita finantzaketa-eskaera egin duela 12. artikulua 1. apartatuko a) letran ezarritako moduan, haren zenbatekoa eta zerga-zorrak barne direla.

b) 12. artikulua 1. apartatuko c) eta d) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituzte.

Aurreko a) eta b) letretan ezarritako betekizunen bat betetzen ez bada, epe exekutiboko zerga-bilketako jarduerak abiaraziko dira edo hasita daudenekin jarraituko da, hain zuzen, xedapen honen bigarren paragrafoak xedatutakoarekin bat epe hori hasi zenetik.

Bigarren xedapen iragankorra. *Klase Pasiboen Araubidea kudeatzeko araubide iragankorra.*

1. Berehala eta Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren egiturari buruzko errege-dekretua onartu ondoren, administrazio-, kontabilitate-, aurrekontu- eta finantza-kudeaketa egokitzeko izapideak hasiko dira Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Klase Pasiboen Araubideko prestazioen kudeaketa bere gain hartu ahal izateko. Egokitzapen-prozesu hori amaitzen ez den bitartean, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak kudeatuko ditu prestazio horiek.

Ordura arte, Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginean Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari egindako aipamen oro Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari egindakoa dela ulertuko da.

Era berean, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeaketa bere gain hartu arte, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari dagokio gastua onartzea eta konprometitzea, Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen betebeharrak aitortzea eta ordainketak proposatzea, bai eta Estatuko Ordainketen Agintzaile Orokorriari dagokion ordainketak egiteko eskatzea ere.

2. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari dagozkion prestazio horien ordainketa agintzea eta ordainketa materialaren funtzioak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitalerako Ministerioko Altxoraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak egingo ditu aldi iragankor horretan.

3. Bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko erreklamazioa Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak egingo du aldi iragankorrean, Bidegabeko prestazioak itzultzeko prozedura eta klase pasiboen arloko beste arau batzuk arautzen dituen uztailaren 11ko 1134/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

4. Aipatutako aldi iragankorrean, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren eta Altxor Publikoaren eskumena izango da araubide horrekin lotutako erreklamazio ekonomiko oro.

5. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen errege-dekretuan zehazten den egunean Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusian hasitako prozedurei ez zaie aplikatuko errege lege-dekretu honetan aurreikusitakoa, eta aurreko araudiaren arabera arautuko dira.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Araubide iragankorra, España Deporte Global sektore publikoaren fundazioaren estatutuak onartu eta Estatuaren eskumeneko Fundazioen Erregistroan inskribatu bitartekoa.*

España Deporte Global sektore publikoaren fundazioaren estatutuak onartu eta Estatuaren eskumeneko Fundazioen Erregistroan inskribatzen ez diren bitartean, Kirol Kontseilu Gorenak zuzenean kudeatuko ditu Futbol profesionaleko lehiaketan ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziatzeko neurri buruzko apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuak 6. artikulua 1. apartatuko f) letran aurreikusitako zenbatekoak, eta hartan ezarritako xedeetara bideratuko ditu.

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hilabeteko epean, España Deporte Global sektore publikoaren fundazioaren estatutuak onartu beharko dira.

Laugarren xedapen iragankorra. *Unibertsitate-mailegu batzuei aplikatzen zaizkien xedapenak.*

1. Urriaren 14ko CIN/2940/2008 Aginduaren bidez, azaroaren 17ko EDU/3108/2009 Aginduaren bidez edo abenduaren 17ko EDU/3248/2010 Aginduaren bidez onartutako deialdiren batean emandako unibertsitate-maileguren bat sinatu duten pertsonak beren kontratu-tresna berritzea hautatu ahal izango dute 2020ko uztailaren 31 baino lehen, Zientziaren, teknologiaren, berrikuntzaren eta unibertsitatearen arloetako presako neurrien otsailaren 8ko 3/2019 Errege Lege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzetan. CIN/2940/2008 Aginduaren bidez, unibertsitate-masterreko ikasketak egiteko etorkizuneko errenta bati lotutako maileguak arautzen dira; EDU/3108/2009 Aginduaren bidez, unibertsitate-masterreko edo doktoretzako graduondoko ikasketak egiteko etorkizuneko errenta bati lotutako maileguak, eta, EDU/3248/2010 Aginduaren bidez, master- eta doktorego-ikasketak egiteko unibertsitate-maileguak.

2. 2020ko abenduaren 31ra arteko hasierako gabealdia ezartzen da berrikuntza horri heltzen dioten mailegu guztietarako, Zientziaren, teknologiaren, berrikuntzaren eta unibertsitatearen arloetako presako neurrien otsailaren 8ko 3/2019 Errege Lege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean gabealdiari buruz ezarritakoari ezertan galarazi gabe.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian sartzeko betebeharrak egiaztatzea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ez badu egin Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian ezarritako Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian egiten diren sartzeak baliozkoak direla frogatzeko egiaztatpena, honako honen 324.1 artikulua xedatzen dituen betebeharrekin bat egingo da: 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginarena; azken xedapenetako seigarrenak artikulua horri emandako idazketaren arabera.

Azken xedapenetako lehena. *Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategina aldatzea; apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori.*

Aldatu egiten da apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategina, eta aldaketa indarrean jarriko da Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren oinarritzako egitura organikoa garatzen duen errege-dekretuan zehazten den datan. Hona nola geratzen den idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 8. artikulua 2. apartatua:

«2. Estatuko Klase Pasiboetako prestazioren baten onuraduna hiltzen denean, prestazio horren hartzekoak —sortu, baina kobratu ez direnak— zuzenbide zibilarekin bat jaraunse direnei ordainduko zaizkie, alderdi legitimoak hala eskatuta. Jaraunseletako batek akzioa egikaritzen badu, egon daitezkeen gainerako jaraunseleen mesederako izango da. Hartzeko horiek sortu eta interesdunak edo jaraunspen-komunitateak jaso baditu, ez da bidezkoa izango klase pasiboen zerbitzuengatik itzulketa-eskaera.

Aurreko paragrafoan aipatutako hartzekoei buruzko ebazpena Klase Pasiboen zerbitzuek emango dute, kontuan hartuta, bai oinordekoak edo oinordekoek aurkez dezaketen dokumentazioa, bai zerbitzu horietan dagoena, eta ez da beharrezkoa izango Gizarte Segurantzaren Administrazioako Zerbitzu Juridikoari kontsulta egitea haiek egokitzen jotzen ez badute. Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia gaituta geratuko da horretarako beharrezkoak diren jarraibideak emateko».

Bi. Honela geratzen da idatzita 11. artikulua:

«11. artikulua. *Eskubide pasiboak aitortzeko eta Estatuko Klase Pasiboen prestazioak emateko eskumena.*

1. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dagokio testu honen 3.1 artikuluan aipatzen diren langileek beraien edo beren senideen alde sortu dituzten eskubide pasiboak aitortzea eta Klase Pasiboen prestazioak ematea.

2. Manu honetan aipatutako eskumenak ulertuko dira ezertan eragotzi gabe arlo horretan zerbitzu juridikoek, fiskalek edo dagozkion eskuordetutako esku-hartzaileek dituzten funtzioak».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 12. artikulua:

«12. artikulua. *Estatuko Klase Pasiboen prestazioak ordaintzeko eskumena.*

1. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala da Klase Pasiboen prestazio guztien ordainketak proposatzeko eta obligazioak aitortzeko berezko eginkizunak gauzatzeko eskumena duen erakunde kudeatzailea.

2. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dagokio Klase Pasiboen prestazioetarako kredituak administratzea eta xedatzea.

3. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dagokio Klase Pasiboen prestazioak ordain daitezzen agintzea eta horien ordainketa materiala egitea.

4. Prestazio horien ordainketa materialaren funtzioak egitea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eskumena da».

Lau. Honela geratzen da idatzita 13. artikulua 3. apartatua:

«3. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eskumen eskusiboa da aipatutako organo eta erakundeek aitortutako zerbitzuak Klase Pasiboen Araubidearen ondorioetarako zenbatzea».

Bost. Kendu egiten da 14. artikulua 2. apartatua; 3. apartatua 2. apartatu izango da, eta 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Klase Pasiboen arloan Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak hartutako erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Administrazioarekiko auzibidera jo aurretik, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari».

Sei. Honela geratzen da idatzita 16. artikulua 1. apartatua:

«1. Klase Pasiboetako prestazioen onuradunek bidegabeki jasotako zenbatekoak Gizarte Segurantzaren sistemak prestazio bidegabeak itzultzeari buruzko araudian aurreikusitako moduan eta baldintzetan itzuli beharko dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zenbatekoak bidegabeki jaso dituenak itzulketa eragin zuen prestazioaren edo klase pasiboen beste edozein prestazioaren onuradun izaten jarraitzen badu, zorra pentsio horren hurrengo hilekoen kargura ordaintzea erabaki ahal izango da, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan eta moduan».

Zazpi. Honela geratzen dira idatzita 34. artikulua 2. eta 4. apartatuak:

«2. Ondore horietarako, eskubide pasiboen kausatzailearen legezko absentzia-adierazpena ez da bere senideen eskubideen erabakigarritzat hartuko; izan ere, eskubide horiek soilik sortuko dira absentzearen heriotza-adierazpenarekin, Kode

Zibilaren 193. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera erabakitakoarekin bat etorritz.

Eskubideen sortze-data beti izango da ebazpen judizialean jasotzen den heriotza-data, testu honen 7. artikuluan preskripzioari dagokionez esaten dena ezertan eragotzi gabe.

Hala eta guztiz ere, legezko absente deklaratuak erretiro-pentsioa jasotzen badu, edo, haren adina eta Estatuarentzat benetan egindako zerbitzuak kontuan hartuta, erretiro-pensio horiek jasotzeko eskubidea badu, haren senideek eskubidea izango dute kausatzailea hilez gero legokiekeen pensioa jasotzeko.

Pentsio hori behin-behineko izaeraz aitortuko da legezko absentzia, bere garaian gertatutako heriotzaren ondoriozkoa, deklaratu eta hurrengo hilaren 1etik aurrera, edo, bestela, absentea aurkeztu izanaren edo haren existentziaren frogaren ondorioz aitortutakoa. Horrela egindako ordainketengatik, ez da bidezkoa izango ondoren agertzen den legezko absente deklaratuak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari erreklamaziorik egitea, ezertan eragotzi gabe azken horrek bere senideei ordaindutakoaren eta hark jaso beharrekoaren arteko aldeak erreklamatzeko duen eskubidea, eta denbora igarotzeagatik preskribatu gabeko kopuruei dagokienez bakarrik».

«4. Ezin izango zaio inolako erreklamaziorik egin Gizarte Segurantzaren Administrazioari, heriotza deklaratzeko duen ebazpen judizialaren arabera hartu ahal izan diren erabakiak direla-eta; hori, halere, ez da eragozpena izango interesdunen artean sor daitezkeen auziak jurisdikzio arrunteko organoetan bideratzeko. Era berean, heriotza-aitorpenean oinarrituta emandako pentsioaren titularrari ezin izango zaio eskatu jasotako zenbatekoak itzultzeko».

Zortzi. Honela geratzen dira idatzita 37. ter artikuluan 1. eta 3. apartatuak:

«1. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kautelaz etengo du senideen alde aitortutako prestazioen ordainketa, baldin eta onuradunarekin zerikusia duen ebazpen judiziala eman eta horretatik antzematen bada edozein motako giza hilketaren doloazko delituagatik kriminalitateko arrazoizko zantzuak daudela eta biktima prestazioaren subjektu eragilea bada; etete horrek ondorioak izango ditu egoera horren berri ematen zaion egunaren hurrengo hileko lehenengo egunean.

Aipatutako kasuetan, kautelazko etetea mantendu egingo da, harik eta epai irmoa edo zigor-prozedurari amaiera ematen dion edo onuraduna errugabea dela xedatzen duen beste ebazpen irmo bat eman arte.

Prestazioaren onuraduna azkenean kondenatua bada, epai irmoaren bidez, aipatutako delitua egiteagatik, aitortutakoa berrikustea bidezkoa izango da eta, hala badagokio, jasotako prestazioak bueltatu beharko dira, 37 bis artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz. Kasu horretan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak pentsioen zenbatekoa ezarriko du kondenatua ez balego bezala.

Epai edo ebazpen judizial irmoaren bidez, prozesua aipatutako kondena barik amaitzen bada edo onuradunaren erruduntasunik eza ebazten bada, etendako prestazioaren ordainketari ekingo zaio, etendura erabaki ezean izango zituzkeen ondorioekin».

«3. Artikulu honetan aurreikusitakoarekin bat adostutako prestazioaren ordainketa eten bitartean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak pentsioen zenbatekoa finkatuko du, egonez gero, 1. apartatuan aipatzen den epaiaren helburu izan den pertsona ez balego bezala. Zenbateko hori behin-behinekoa izango da, harik eta zigor-prozesuari amaiera emango dion epai irmoa eman arte.

Kausa artxibatuz gero edo absoluzio-epai irmoa egonez gero, kautelaz etendako prestazioak ordainduko dira. Hala ere, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulaturako pentsioaren onuradunak ez du inolako kopururik bueltatu behar izango».

Bederatzi. Honela geratzen da idatzita 37. quater artikulua:

«37. quater artikulua. *Senideen aldeko pentsioak ordaintzea, zenbait kasutan.*

Onuradun adingabeak edo judizialki ezinduak egonez gero, zeinen guraso-ahala edo tutoretza esleituta baitu kriminalitateko arrazoizko zantzuak erakusten dituen ebazpen judizialaren helburu den pertsona batek edo edozein motako giza hilketaren doloizko delituagatik kondena-epai irmoa jaso duen pertsona batek, pentsioa ezin izango zaio ordaindu pertsona horri.

Nolanahi ere, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Ministerio Fiskalari jakinaraziko dio pentsioa badagoela, bai eta guraso-ahala edo tutoretza duen pertsona giza hilketagatik doloizko delitu baten arduraduna dela pentsatzeko arrazoizko zantzuak daudela jasotzen duen edozein ebazpen judizial ere, hala badagokio, neurri egokiak har ditzan, pentsioa ordaindu behar zaion adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatua duen pertsona fisikoarekin edo tutoretza-erakundearekin lotuta. Neurri horiek hartuta, egoera prozesal hori dela-eta administrazioak, hala dagokionean, Ministerio Fiskalari jakinaraziko dio prozesuari amaiera emateko ebazpena eta adosten den ebazpen judizialaren irmotasuna ala irmotasunik eza».

Hamar. Honela geratzen da idatzita 47. artikulua 2. apartatua:

«2. Kapitulu honetan jasotako langileen zerbitzurako ezintasun iraunkorrak edo ezereztasunak erretiro-pentsio berezia ekarriko du, ezintasun hori 28.2.c) artikuluan adierazitako moduan ulertuta, betiere ezintasun hori istripu edo gaixotasun baten ondorioz, zerbitzu-egintzan edo zerbitzuaren ondorioz gertatzen bada. Ezereztasuna eragiten duen gaixotasunaren kasuan, gaixotasun hori zerbitzu-egintzaren edo egindako zerbitzuaren izaeraren ondorio zuzen gisa agertu beharko da.

Nolanahi ere, langile horiek jubilatutzat edo erretiratutzat joko dira zerbitzu-egintzan edo zerbitzuaren ondorioz ezgaitu edo ezerezten direnean.

Aurreko 28.3 artikuluan aipatutako erakunde eta entitateek deklaratu dute erretiroa, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eskumen eskusiboa izango da pentsio berezia ematea edo ez ematea. Hori guztia Defentsa Ministerioak zerbitzu-egintzaren izaera zehazteko duen eskumena ezertan eragotzi gabe».

Hamaika. Hamabigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Hamabigarren xedapen gehigarria. *Informazioa ematea.*

1. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren eta Ogasun Ministerioaren edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoen, foru-aldundien eta udalen mendeko erakunde eskudunek, urteko ekitaldi bakoitzaren barruan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari emango dizkiote prestazioak jasotzen dituzten onuradunen, ezkontide onuradunen eta familia unitate barruko beste onuradunen lan-egoerari, errenta-mailei eta gainerako diru-sarrerei buruz eskatzen dituen datuak, Klase Pasiboen pentsioak eta beren eskumenen esparruan kudeatu behar dituen beste prestazio batzuk kudeatze aldera, baldin eta datu horiek kontuan hartu behar badira prestazio horiek aitortzeko eta mantentzeko edo haien zenbatekoa finkatzeko, eta egiaztatzearen prestazioak jasotzeko behar diren baldintzak une oro betetzen dituztela eta legez ezarritako zenbatekoan jasotzen dituztela.

2. Justizia Ministerioak izendatuko duen organismoak bere esku dauden eta institutuak kudeatzen dituen prestazio ekonomikoak sortzearekin, aldatzearekin eta kontserbatzearekin edo azkentzearekin loturik egon daitezkeen inskripzio eta datuei buruz Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eskatzen dion informazioa emango dio.

3. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren esku dauden bere eskumeneko prestazioen eskatzaileei buruzko datu guztiek, beste erakunde publiko batzuek transmisio telematikoki bidez igorritakoek edo beste erakunde batzuen datu-base

korporatiboetara sarbide informatiko zuzena izatearen ondorioz Klase Pasiboen informazio-sistemetan finkatutakoek, erabateko ondorioak izango dituzte eta erakunde horiek paper-euskarriko ziurtagiriaren bidez jakinarazi izan balituzte bezalako balioa izango dute.»

Hamabi. Hamabosgarren xedapen gehigarriaren Bi apartatua honela geratzen da idatzita:

«Bi. Administrazioak eskubidea du bidegabeki jasotako prestazioak itzul dakizkion eskatzeko, eta eskubide hori lau urtera preskribatuko da, prestazioa jasotzen den egunetik edo prestazioa itzultzeko eskatzeko akzioa baliatu ahal izan den egunetik zenbatzen hasita, prestazioa bidegabe jasotzea eragin zuen arrazoia edozein dela ere.

Estatuko Klase Pasiboen Erregimenean ezarritako betebeharrak ekonomikoak betetzeko preskripzio-epea ere lau urtekoa izango da».

Hamahiru. Hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Amatasunagatiko osagarria Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak aitortuko du. Nolanahi ere, ordainketa egiteko eskumena Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari egokituko zaio beti.

Amatasunagatiko osagarria ez da inolaz ere erretiro-pentsioaren zati izango testu bategin honen aplikazio-eremuko langileen senideen aldeko pentsioak aitortzeko oinarri arautzailea zehaztearen ondoretarako».

Azken xedapenetako bigarrena. *Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 91. artikulua bi.1 apartatuaren 2. zenbakia, eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera izango ditu ondoreak. Hona nola geratzen den idatzita:

«2.a Liburuak, egunkariak eta aldizkariak, baita bide elektronikoz emandako zerbitzuetatik hartzen direnean ere, baldin eta publizitatea bakarrik edo funtsean ez badute eta haien edukia osorik edo nagusiki bideo edo musika entzungarria ez bada, bai eta horiekin batera prezio bakarrean ematen diren elementu osagarriak ere.

Zenbaki honetan jasota geratuko dira berehalako emaitza gisa liburu, egunkari edo aldizkari bat (pleguan edo jarraituan) eskuratzea zein ondasun horien fotolito bat eskuratzea edo horien azaleztatzea dakarten lanak.

Xede horietarako elementu osagarriak hartuko dira magnetofono-zintak, diskoak, bideokaseteak eta antzeko beste euskarri soinuak edo bideomagnetikoak, baldin eta liburu, egunkari edo aldizkariarekin unitate funtzionala osatzen badute, edukia hobetzen edo osatzen, eta horiekin batera saltzen badira, salbuespen hauekin:

a) Musika-obra besterik ez dituzten diskoak eta magnetofono-zintak, haien merkatu-balioa handiagoa denean haiekin batera doan liburuarena, egunkariarena edo aldizkariarena baino.

b) Filmak, telebistako saioak edo sailak (fikziokoak edo musikalak) dituzten bideokaseteak eta antzeko beste euskarri soinuak edo bideomagnetikoak, haien merkatu-balioa handiagoa denean haiekin batera doan liburuarena, egunkariarena edo aldizkariarena baino.

c) Aurreko letretan adierazitako euskarrietan edozein bitartekoz grabatutako informatika-produktuak, batik bat modu independentean merkaturatzen diren programak edo aplikazioak dituztenean.



Liburuek, egunkariek eta aldizkariek batez ere publizitatea biltzen dutela ulertuko da argitaratzaileari ematen dizkioten diru-sarreraren ehuneko 90 baino gehiago kontzeptu horrengatik eskuratzen badira.

Partiturak, mapak eta marrazki-koadernoak zenbaki honen barruan sartzen direla joko da, artikulua eta aparatu elektronikoak izan ezik.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu batgina aldatzea.*

Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu batgina honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 23. artikulua 1. apartatuko c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Aitorpenak egitea, edo datu faltsuak edo zehaztugabeak eman, komunikatu edo kontsignatzea, datu horien ondorioz langileek prestazioak bidegabeki jaso edo balia ditzaten, bai eta bere langileekin edo gainerako onuradunekin ados jartzea ere, kasuan-kasuan bidezkoak ez diren prestazioak edo bidezkoak direnak baino handiagoak lortzeko, edo prestazioen arloan haietako edozeini dagozkion betebeharrak saihesteko.»

Bi. Aldatu egiten da 23. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Arau-hauste oso astunen kasuan, ulertuko da enpresak arau-hauste bat egiten duela Gizarte Segurantzaren prestazioak iruzurrez eskatu, lortu edo baliatu dituzten langile bakoitzeko.

Ezertan eragotzi gabe 43.3 artikuluan ezarritakoa, aurreko apartatuko a), c) eta e) letretan adierazitako arau-hausteetan, enpresak erantzukizun solidarioa izango du langileak bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeari dagokionez.

Jarduerari berari dagozkion obrak edo zerbitzuak beste batzuekin kontratatzen edo azpikontratitzen dituzten enpresek erantzukizun solidarioa izango du aurreko 1.a) apartatuak jasotzen dituen arau-hausteekiko, hain zuzen, kontratatutako edo azpikontratutako enpresak kontrataren indarraldian zehar egiten dituzten arau-hausteekiko.

1.h) apartatuan aipatutako arau-hausteen kasuan, prestakuntza-erakundeak edo enpresek programatutako prestakuntza-ekintzen antolakuntza beren gain hartzen duten erakundeak eta laguntza eta dirulaguntza publikoen eskatzaile edo onuradunak erantzule solidario izango dira prestakuntza-ekintza bakoitzeko bidegabe baliatutako zenbatekoak itzultzeari dagokionez.»

Hiru. Apartatu bat gehitzen zaio 43. artikuluari, 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. 23.1.c) artikuluan aurreikusitako arau-haustearen kasuan, enpresak zuzenean erantzungo du langileak bidegabe jasotako zenbatekoen itzulketa, betiere langile horren dolorik edo errurik ez badago.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Lorcan (Murtzia) 2011ko maiatzaren 11n izandako mugimendu sismikoek eragindako kalteak konpontzeko premiazko neurriak onartzen dituen maiatzaren 13ko 6/2011 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Lorcan (Murtzia) 2011ko maiatzaren 11n izandako mugimendu sismikoek eragindako kalteak konpontzeko premiazko neurriak onartzen dituen maiatzaren 13ko 6/2011 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua honela geratzen da idatzita:

«7. artikulua. *Batzorde mistoa.*

Partikularrei beren ohiko bizilekua osatzen duten etxebizitzak alokatu, berreraiki, zaharberritu edo konpontzeagatiko emandako laguntzak balioetsi, zehaztu eta zenbatesteko batzorde misto bat sortuko da, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoko Gobernuaren ordezkaria eta autonomia-erkidego horretako Herri Lan eta Lurralde Antolamenduko sailburua izango dituen buru, eta Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkari batek, administrazio autonomikoko ordezkari batek eta Lorca Udaleko ordezkari batek osatua egongo dena.

Batzorde misto horrek, ekitate-irizpideak kontuan hartuta, egiaztatutako gastuak eta kalteak eta eskatzaile bakoitzaren egoera ekonomiko eta soziala balioetsi ondoren, organo eskudunari helaraziko dio eskatzen den laguntzari buruzko proposamen banakatu bat, bai eta aldeko proposamena izanez gero eman beharreko zenbatekoari buruzkoa ere. Zenbateko horrek ezin izango ditu, inola ere, 3. artikuluan kasu bakoitzerako ezartzen diren mugak gainditu.

Batzorde misto horrek Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari eskatu ahal izango dio egindako kalteen balorazioei eta ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoari buruz erakunde publiko horrek duen informazioa. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak baimena du informazio hura lagatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Halaber, dagokion ebazpenean zehaztu beharko da laguntzaren xede diren obrak egiteko gehieneko epea. Etxebizitza berreraikitze edo birgaitzeko gehieneko epea 24 hilabetekoa izango da, eta kalteak konpontzeko gehieneko epea 12 hilabetekoa.

Nolanahi ere, etxebizitza berreraikitze edo birgaitzeko obrak egiteko edo kalteak konpontzeko ezartzen den gehieneko epea ezin izango da izan 2023ko urriaren 31 baino geroagokoa».

*Azken xedapenetako bosgarrena. Futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziazko neurriei buruzko apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Futbol profesionaleko lehiaketen ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin loturiko urgentziazko neurriei buruzko apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 1. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Errege lege-dekretu honen helburua da Lehen eta Bigarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionalari, Errege Kopari, Espainiako Superkopari eta Espainiako Futboleko Errege Federazioak antolatutako Estatuko gainerako lehiaketei, gizonezkoena zein emakumezkoena izan, dagozkien futbol-txapelketetako ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideen merkaturatze-arauak ezartzea, eta orobat lortutako diru-sarrerak antolatzailen eta partaideen artean banatzeko irizpideak ezartzea.»

Bi. Aldatu egiten da 4. artikulua 4. apartatuko f) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«f) Merkaturatze-kontratuen iraupena Europar Batasunaren lehia-arauen mende egongo da.

Aldaketa hori eraginkorra izango da apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jarri ondoren onartzen diren merkaturatze zentralizatuaren xede diren ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzeko».

Hiru. 6. artikulua 1. apartatuan, a) eta c) letrak aldatzen dira, eta f) letra gehitzen da; hona hemen nola gelditzen diren idatzita:

«a) Ehuneko 2,5 konpentsazio funts bat finantzatzera bideratuko da. Futbol profesionaleko lehiaketan arituta, kategoriaz jaisten diren kirol-erakundeak izango dira funts horren onuradunak. Kantitate horren % 90 Lehen Mailatik jaisten diren taldeentzat izango da, eta % 10, berriz, Bigarren Mailatik jaisten direnentzat.»

«c) Ehuneko 2 Espainiako Futboleko Errege Federazioari emango zaio, futbol amateurra eta federazio-azpiegiturak garatzeko ekarpen solidario gisa, bai eta kategoria ez-profesionalen lehiakortasuna haien egitura eguneratuz hobetzeko ere. Kantitate hori handitu ahalko da, Espainiako Kirol Federazioei eta Kirol Elkarteen Erregistroari buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretuaren 28. artikuluan aipatzen den hitzarmenaren esparruan. Gobernuak arauz zehaztuko du kantitate hori lurralde-esparruko federazioen artean banatzeko xedeak eta irizpideak, lizentzia kopuruaren arabera.»

«f) Ehuneko 1,5 Kirol Kontseilu Gorenari emango zaio, eta horrek bideratuko du kirol federatua, olinpikoa eta paralimpikoa sustatzeko, bultzatzeko eta zabaltzeko, bai eta Espainiako kirola nazioartekotzeko ere.

Horretarako, fundazio bat eratu ahal izango da, honako hauen parte-hartzearekin: Kirol Kontseilu Gorena, Espainiako Futboleko Errege Federazioa, Futbol Liga Profesionala («LaLiga»), eta Espainiako gainerako kirol-federazioak eta lehiaketa ofizialak eta ez-ofizialak. Fundazio horri aurreko paragrafoan aurreikusitako helburuak lortzeko ardura emango zaio.»

Lau. Aldatu egiten dira 8. artikulua izenburua, 1. apartatuaren lehen paragrafoa eta apartatu horren a) letra eta b) letraren lehen paragrafoa, eta honela geratzen dira idatzita:

«8. artikulua. *Errege Kopako, Superkopako eta Espainiako Futboleko Errege Federazioak antolatzen dituen Estatuko gainerako lehiaketetako ikus-entzunezko eskubideak merkaturatzeko eta banatzeko espezialitateak.*

1. Espainiako Futboleko Errege Federazioak zuzenean merkaturatu ahal izango ditu Errege Kopako, Espainiako Superkopako eta antolatzen dituen Estatuko gainerako lehiaketetako (gizonezkoenak zein emakumezkoenak) ikus-entzunezko eskubideak, 4. artikulua arabera.

Espainiako Futboleko Errege Federazioak eskubide horiek merkaturatzetik eskuratzen dituen diru-sarrerak irizpide hauen arabera banatuko ditu:

a) Diru-sarreraren % 60 Futbol Profesionaleko Liga Nazionaleko taldeei bideratuko zaie, eta 5. artikuluan aurreikusitako arauekin bat esleituko dira. 5.3 artikulua b) letrako 1. irizpidea aplikatzean, azken bost denboraldietan txapelketaren final-zortzirenetan parte hartu duten erakundeak soilik hartuko dira kontuan, honela haztatuta: Txapelduna, % 22; txapeldunordea, % 16; finalaurrekora iritsi direnak, % 9; final-laurdenetara heldu direnak, % 6; final-zortzirenetara heldu direnak, % 2,5.

b) Gainerako % 40a futbol amateurra eta txapelketan parte hartzen duten beste kategoria batzuetako taldeak sustatzeko erabiliko da.»

Bost. Xedapen iragankor bat, hirugarrena, eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hirugarren xedapen gehigarria. *Estatuko kirol-federazioen eta futbolaz bestelako lehiaketen ikus-entzunezko eskubideak kudeatzea eta merkaturatzea.*

Futbolaz bestelako kirol-modalitateetako kirol-federazioek ikus-entzunezko eskubideen kudeaketa eta merkaturatzea beren gain hartu nahi ez dutenean, 6.1 artikulua f) letran aipatzen den fundazioaren esku soilik utzi ahal izango dute kudeaketa hori.»

Sei. Bigarren paragrafo bat gehitzen zaio azken xedapenetako hirugarrenari, eta honela geratzen da idatzita:

«Hirugarren xedapen gehigarria 6.1 artikulua f) letran aipatzen den fundazioa sortzen den unean jarriko da indarrean.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzea.*

Aldatu egiten dira urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 324. artikulua 1. eta 2. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Sistema berezi honetan sartuko dira aurreko artikuluan aipatzen diren langileak, baldin eta nekazaritza-ustiategien titularrak badira eta ustiategiaren nekazaritza-lanak modu pertsonalean eta zuzenean egiten badituzte, nahiz eta besteren konturako langileak izan haietzako lanean, betiere hileko oinarrien modalitatearekin kotizatzen duten bi langile baino gehiago ez badira, edo 255. artikuluan aipatzen diren eguneko oinarrien modalitatearekin kotizatzen duten langileak badira eta, benetan egindako lanaldien guztizko kopurua ez bada bostehun eta berrogeita seitik gorakoa urtebetean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte zenbatuta. Benetako lanaldien kopurua proportzionalki murriztuko da norberaren konturako nekazaritzako langileak sistema berezi horretan eta dagokion urte naturalean alta emandako egunen kopuruaren arabera.

Ulertuko da aurreko paragrafoan besteren konturako langileen kontratazioa dela-eta ezarritako mugak nekazaritza-ustiategi bakoitzeko aplikatuko direla.

2. Sistema berezi honetan ezarritako ondorioetarako, nekazaritza-ustiategitzat hartzen da titularrak nekazaritza-jarduerarako antolatutako ondasun eta eskubideen multzo osoa, berez unitate tekniko-ekonomiko bat osatzen duena; ustiategiaren titularrak edo titularrek izaera hori izan dezakete nekazaritza-ustiategi horretako finken nahiz elementu materialen jabe, errentari, partzuer, lagapen-hartzaile edo antzekoak izateagatik.

Horren harira, honako hau da nekazaritza-jarduera: nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak eskuratzeko behar den lan multzoa.

Sistema berezi horretan ezarritako ondorioetarako, nekazaritza-jardueratzat hartuko da nekazariak bere ekoizpenaren zuzeneko salmenta egitea, eraldaketarik gabe, edo produktuen lehenengo eraldaketa egitea, baldin eta amaierako produktua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 38. artikulua 1. eranskinean jasota badago, dela ustiategia osatzen duten elementuen barruan, dela udal-azoketan edo dela merkataritza-establezimendu iraunkor ez direnetan; halaber, nekazaritza-jardueratzat hartuko dira ustiategiaren kudeaketa edo zuzendaritza eta kudeaketa dakartzaten guztiak.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, aldatzea.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikulua 4. apartatuko d) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Proposamena jasotzen duten gutun-azalak edo artxibo elektronikoak 145. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokien hurrenkeran irekiko dira, baldintza-agirietan ezarritako adjudikazio-irizpideak baloratzeko aplikatzeko den metodoaren

arabera. Lege honen 326. artikulua 6. apartatuak aipatzen duen kontratazio-mahaiak irekiko ditu. Nolanahi ere, jendaurrekoa izango da baldintza-agirietan ezarritako formulak aplikatze hutsez eskaintzaren irizpide kuantifikagarrien bidez ebaluatzekoa den eskaintzaren zatia biltzen duten gutun-azalak edo artxibo elektronikoak irekitzeko ekitaldia, lizitazioan bitarteko elektronikoak erabil daitezkeela aurreikusten denean izan ezik. Horretarako, baldintza-agiriaren eranskin gisa agertzen den eskaintza-ereduak xehetasun horiek jasoko ditu».

Azken xedapenetako zortzigarrena. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 17. artikulua 7. apartatua:

«7. Prestazio horren kudeaketa Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei edo Itsasoko Gizarte Institutuari dagokie.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 83.1.b) artikuluan aurreikusitako aukera baliatu ez duten langile autonomoek aparteko prestazioa jasotzeko eskubidea sortuko badute, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua baten aurrean eskaera aurkeztu beharko dute; une horretatik aurrera, aipatu artikuluan aurreikusitako aukera egin dela ulertuko da, eta jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa jasotzeko eskubidea sortzen den hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondoreak. Prestazioaren eskaerarekin batera, dagokion atxikipena formalizatu beharko dute mutualitate horrekin. Atxikimendu horrek barne hartuko ditu kontingentzia profesionalen estaldura, kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasuna eta ordura arte Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoekin estalita zuten jarduera uztearen prestazioa.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aukera horiek jasoko ditu mutua laguntzaileek aparteko prestazioak aitortzeari buruz egiten dizkioten komunikazioen bidez edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ezar dezakeen beste edozein prozedura erabiliz.»

Bi. 22. artikulua 1. paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«COVID-19aren ondoriozko edo alarma-egoeraren deklarazioaren ondoriozko jarduera-galerek zuzenean eragin dituzten kontratu-eteteak eta lanaldi-murrizketak ezinbesteko kasutzat hartuko dira, baldin eta behar bezala egiaztatzen bada honako hauek berekin ekarri dituztela: jarduerak etetea edo bertan behera uztea; publikoarentzat zabalik zeuden lokalak aldi baterako ixtea; garraio publikoa eta, oro har, pertsonen eta salgaien mugikortasuna murriztea; jarduerak ohi bezala garatzen jarraitzea modu larrian galarazten duen hornigairik eza; edo, bestela, plantilla kutsatuta egoteagatik aparteko eta presako neurriak hartu behar izatea edo osasungintzako agintaritzak egindako dekretu baten bidez prebentziozko bakartze-neurriak ezarri behar izatea. Halako kasuek Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 47. artikuluan jasotako ondorioak izango dituzte —urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategin hori—.

Baldin eta jarduera mantendu behar bada, alarma-egoeraren deklarazioak, lege mailako beste arau batzuek edo martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 4. artikulua xedatutakoa dela-eta, ulertuko da aurreko paragrafoan jasotako ezinbesteko kasua gertatzen dela jarduera mantentzeko aipatu baldintzek eragiten ez duten jardura-zatiari aplikatuko zaizkion kontratu-eteteen eta lanaldi-murrizketen kasuan».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 25. artikulua 6. apartatua:

«6. Langabeziagatiko babesaren arloko aparteko neurriak honela aplikatuko zaizkie aldizkako langile finkoei eta data jakinetan errepikatzen diren lan finko eta aldizkakoak egiten dituztenei:

a) Dena delako langileek zerbitzuak ematen dituzten enpresak kontratua etetea edo lanaldia murriztea erabaki badu, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan araututako prozeduren ondorioz, ukitutako langileek artikulua honen 1. apartatua ezarritako neurriak baliatu ahal izango dituzte.

Aldizkako langile finkoek eta data jakinetan errepikatzen diren lan finko eta aldizkakoak egiten dituztenek, ekoizpen-jarduerarik gabeko aldiak badaude, eta, beraz, COVID-19aren krisialdia gertatu ezean, deialdia egin eta berriro lanean hasteko datan zain badaude, artikulua honen 1. apartatua xedatutako neurriak ere baliatu ahal izango dituzte.

b) Aurreko apartatua aipatutako egoeran egon ez arren, COVID-19aren inpaktuaren ondorioz zerbitzua ematea eten zaien langileek, hain zuzen, aparteko zirkunstantzia hori gertatu ez balitz lanean jarraituko luketenean, etete horren ondorioz, langabezia-prestazioaren onuradun badira, berriz jaso ahal izango dute prestazio hori, 90 eguneko gehieneko mugarekin, legezko langabezia-egoeran berriz ere daudenean. Aparteko egoera hori gertatu ezean jarduera-aldia izango zen garaia zehazteko, kontuan hartuko da lan-kontratu bera oinarritzat hartuta langileak aurreko urte naturalean benetan lan egindako aldia. Langilearen lehenengo urtea bada, enpresan harekin konparagarriak diren beste langile batzuen jarduera-aldiak hartuko dira. Neurri hori kontsumitutako eskubide berari aplikatuko zaio, eta entitate laguntzaileak ofizios onartuko du interesdunak berrekiteko eskaera egiten duenean.

c) COVID-19aren inpaktuaren ondorioz, aurreikusitako datan beren jarduerara itzultzerik izan ez dutela eta une hartan prestazioen onuradun zirela egiaztatzen duten langileei ez zaie etengo jasotzen ari ziren prestaziorako edo subsidiarako eskubidea.

Jarduerara itzuli behar zuten egunean langabeziagatiko prestazioak jasotzen ari ez baziren, horiek agortu zituztelako, baina kontribuzio-prestazio berri bat lortzeko beharrezkoa den kotizazio-aldia egiaztatzen bazuten, lanean berriro hasteko ezintasunaren enpresa-ziurtagiria izango da langabeziaren legezko egoera justifikatzen duena, prestazio hori jasotzeko eskubidea aitortzeari dagokionez.

Paragrafo honetan aipatzen diren langileei aplikatuko zaie apartatu honen b) letran aurreikusitako prestazio-eskubidearen berrezartzea.

d) Beren jarduera etenda izan duten eta COVID-19aren ondorioz lanera itzuli ezin izan diren langileek, langabezia-prestazioa lortzeko beharrezkoa den laneko kotizazio-aldia ez badute, kotizaziopeko beste prestazio bat jasotzeko eskubidea izango dute. Prestazio hori lanpostura itzuli arte jaso ahal izango da, gehienez ere 90 eguneko mugarekin. Prestazio berriaren hileroko zenbatekoa jasotako kotizaziopeko prestazioaren azken hileroko zenbatekoa izango da, edo, hala badagokio, kotizaziopeko prestazioaren gutxieneko zenbatekoa. Eskubide bera izango dute COVID-19aren ondoriozko krisi-egoeran dauden eta langabezia-prestazioak beren lanpostura itzuli baino lehen agortzen dituztenek, baldin eta eskubide berri bat aitortzeko kotizazio nahikorik ez badute; kasu horretan, lanean berriro hasteko ezintasunaren enpresa-ziurtagiria izango da legezko langabezia-egoera berria justifikatzen duena. Kasu horretan, ez zaie apartatu honetako b) letran aurreikusitakoa aplikatuko legezko langabezia-egoera berri bat egiaztatzen dutenean.»

Lau. Honela geratzen dira idatzita 29. artikulua 1. eta 2. apartatuak:

«1. Enpleguari eusteko eta COVID-19aren ondorio ekonomikoak leuntzeko, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak abalax emango dizkio kreditu-erakundeek, kredituko finantza-establezimenduek, diru elektronikoko

erakundeek eta enpresa eta autonomoentzako ordainketa-erakundeek emandako finantzaketari, besteak beste honako hauetatik eratorritako beharrei erantzuteko: fakturen kudeaketa, nominak ordaintzea eta hornitzaileei ordaintzea, zirkulatuzailearen beharra, finantza- edo zerga-obligazioen epemugak edo beste likidezia-behar batzuk. Halaber, abalak erabili ahal izango dira CERSA Birfidantzamenduko Espainiako Konpainia Sozietate Anonimorako eta AIAF Finantza Aktiboen Bitartekarien Elkarteko Errenta Finkoko Merkatuari eta MARF Errenta Finkoko Merkatu Alternatiboari gehitutako ordaindukoetarako.

2. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak gehienez ere 100.000 milioi eurorainoko abalak eman ahal izango ditu 2020ko abenduaren 31ra arte. Aplikatu beharreko baldintzak eta bete beharreko betekizunak, abala eskatzeko gehieneko epea barnean dela, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez ezarriko dira, eta ez da beharrezkoa izango gerora araudia garatzea.»

Bost. Aldatu egiten da 33. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Baldin eta zergapekoak, aurreko apartatuetako epeak luzatzeko aukera izan arren edo eskubide hori berariaz erreserbatu ez arren, zerga-arloan garrantzia duen informazio-eskaerari edo errekerimenduari erantzuten badio edo alegazioak aurkezten baditu, izapidea bideratutzat joko da.

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak *Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatu Agentziaren Enkanteen Atariaren bidez egindako enkanteetan*, lizitatuzaileak bere eskaintzak baliogabetzeko eta eraturako gordailuak askatzeko eskatu ahal izango du enkante horiek artikulua honetako 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren eraginpean badaude.

Halaber, gordailua eta, hala badagokio, sartutako errematearen prezioa itzultzeko eskubidea izango dute, hala eskatzen dutenean, eskaintzak aurkezteko fasea amaitu den enkanteetako lizitatuzaileek eta esleipendunek, baldin eta ondasunen esleipen-aktaren ziurtagiria edo salmenta-eskritura publikoa formalizatu ez bada errege lege-dekretu hau indarrean jartzean. Kasu horretan, ez da aplikatuko uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorraren 104.bis artikulua f) letran araututako gordailuaren galera.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *COVID-19aren ondorioak arintzeko lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 24ko 9/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da COVID-19aren ondorioak arintzeko lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 24ko 9/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen gehigarria. *Zehapen-araubidea eta bidegabeko prestazioak itzultzea.*

1. Eskabidean datu faltsu edo okerren bat ematen duten enpresei zehapena ezarriko zaie, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezartzen denarekin bat etorritik.

Era berean, arau horretan aurreikusitakoaren arabera, zehapena ezarri ahal izango zaio enpresaren jokabideari, baldin eta, enpleguari dagokionez, beharrezkoak ez diren edo neurri horiek eragiten dituen kausarekin lotura nahikorik ez duten neurriak eskatzen baditu, betiere egoera hori enpresak emandako datuen faltsutasunetatik edo okerretatik ondorioztatzen bada, eta, bidegabeko prestazioak sortzea edo jasotzea edo Gizarte Segurantzari ordaintzen zaizkien kuotetan bidegabeko kenkariak aplikatzea eragiten badute.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako ez-betetzeetakoren baten ondorioz langileari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik prestazioak bidegabe aitortuz gero, itzuli egin beharko dira bidegabe sortutako prestazioak. Kasu horietan, enpresak erakunde kudeatzaileari ordaindu beharko dizkio langileak jasotako zenbatekoak, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

Prestazioak itzultzeko aurreko paragrafoan ezartzen den betebeharra eskatzekoa izango da Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezartzen diren arau-hausteak preskribatu arte.

Langileak hasieran baimendutako enplegu-erregulazioko aldiari dagokion soldata jasotzeko eskubidea izango du, langabezia-prestazio gisa jasotako zenbatekoak kenduta.»

Azken xedapenetako hamargarrena. *COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikulua 1. aparatuko a) letraren iv. azpiapartatua honela geratzen da idatzita:

«iv. Familia-unitateko kideren batek gutxienez ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna onartuta badauka edo mendekotasun-egoeran edo gaixo badago, eta horren ondorioz lan egiteko ezintasun iraunkorra egiaztatuta badauka, i) azpiapartatuan jasotako muga IPREM halako lau izango da, hargatik eragotzi gabe seme-alaba bakoitzarengatik pilatutako gehikuntzak.»

Bi. COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikulua 1. aparatuko b) letraren iv. azpiapartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«iv. Familia-unitateko kideren batek gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna onartuta badauka edo mendekotasun-egoeran edo gaixo badago, eta horren ondorioz lan egiteko ezintasun iraunkorra egiaztatuta badauka, i) azpiapartatuan jasotako muga IPREM halako lau izango da, hargatik eragotzi gabe seme-alaba bakoitzarengatik pilatutako gehikuntzak.»

Hiru. COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 24. artikulua 6. apartatuari beste testu bat ematen zaio:

«6. Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean eta ibiltzeko askatasuna erabat berrezarri arte, ezin izango dira formalizatu 2. apartatuan aipatutako notario-tresnak. Hala ere, horrek ez du etengo luzamenduaren aplikazioa; izan ere luzamen hori automatikoki aplikatu beharko da, etendura hori dagokion tresnan formalizatu den ala ez alde batera utzita.

Baldin eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak jasotzen dituen hipoteka bermerik gabeko mailegu edo kreditu guztien ondoriozko kontratu-betebeharren aldi bateko etetea, hala dagokionean, kontu-hartzeko polizan formalizatzen bada, formalizazio horrek eragiten dituen notarioko muga-zergaren eskubideak 1950eko abenduaren 15eko Dekretuan ezarritakoak izango dira, eta % 50eko hobaria izango dute —gutxienez 25 euro eta gehienez 50— kontzeptu guztiengatik, kopiak eta helarazpenak barne.



Baldin eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikuluan aipatzen den kontratu-betebeharren aldi bateko etetea, hala dagokionean, erregistratu behar bada, horrek eragiten dituen erregistratzaileen muga-zergaren eskubideak 1999ko uztailaren 19ko Aginduaren bidez onartutako Ordenantzaren 36.9.g artikulua araberako kibratuko dira, hots, 6 euroko zenbateko finkoaz.

Apartatu honetan aurreikusitako formalizazioaren eta inskripzioaren ondoriozko notarioko eta erregistroko muga-zergaren eskubideak hartzekodunak ordainduko ditu beti».

Lau. Honela geratzen da idatzita 35. artikulua:

«35. artikulua. *Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketa geroratzea.*

1. Gizarte Segurantzaren edozein araubidetan sartuta dauden enpresa eta norberaren konturako langileak edo Gizarte Segurantzaren eremuan datuak elektronikoki igortzeko sistemaren (RED sistema) bidez jarduteko baimena dutenek, betiere indarrean beste geroraterik ez badute, Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketa geroratzeko eskatu ahal izango dute, baldin eta ordainketa egiteko arauzko epea 2020ko apiriletik ekainera bitartekoa bada. Geroratze hori Gizarte Segurantzaren araudian ezarritako baldintzetan izango da, baina honako berezitasun hauekin:

1.a % 0,5eko interesa aplikatuko da, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 23.5 artikuluan aurreikusitakoaren ordez.

2.a Arestian aipatutako ordaintzeko arauzko epe bakoitzaren lehen hamar egun naturalak igaro baino lehen egin beharko dira geroratze-eskaerak.

3.a Geroratzea ebazpen bakar baten bidez emango da, —hartzen dituen hilabeteak alde batera utzita— hileko ordainketen bidez amortizatuko da, eta eskatutako hilabete bakoitzeko 4 hilabeteko amortizazio-epea ezarriko du, zeina eskatuko baita ebazpena eman eta hurrengo hiletik aurrera; gehienez ere 12 hilekoa izango da.

4.a Geroratze hori eskatuz gero, eten egingo da zerga-bilketako prozedura, geroratze horrek eragindako zorrei dagokienez, eta zorduna Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela ulertuko da, harik eta dagokion ebazpena eman arte.

2. Artikulu honetan aipatutako geroratzea bateraezina izango da aurreko artikuluan araututako luzamenduarekin. Aldi zehatzarekin loturiko geroratze-eskaera ez aurkeztutaz joko da aldi horrekin berarekin loturik luzamendu-eskaera onartu bazaio eskatzaileari.»

Bost. Aldatu egiten da 36. artikulua 1. apartatua eta honela geratzen da idatzita:

«1. Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean hartutako neurrien ondorioz kontsumitzaileek eta erabiltzaileek sinatutako kontratuak —ondasunen salerosketakoak izan edo zerbitzuak ematekoak izan, segidako traktukoak barne— betetzea ezinezkoa bada, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du 14 eguneko epean, kontratua betearaztea ezinezkoa denetik zenbatzen hasita. Suntsiarazteko asmoa baietsi ahal izango da soilik alderdi bakoitzak, fede onez, egindako berrikuspen-proposamenetik edo proposamenetatik kontratuaren interesen elkarrekikotasuna berrezarriko duen irtenbide bat lortu ezin denean. Berrikuspen-proposamenen barruan, besteak beste, itzulketaren ordezkotako bonuak edo baleak eskaintzea egon daiteke. Ondore horietarako, ulertuko da kontratuaren interesen elkarrekikotasuna berrezartzen duen berrikuspen-proposamenik ezin dela lortu, baldin eta 60 eguneko epea igaro bada

kontsumitzaile edo erabiltzaileak kontratua suntsiarazteko eskaera egin zuenetik, alderdiek berrikuspen-proposamenari buruzko akordiorik lortu gabe.»

Seigarrena. Apartatu bat, 3. apartatua, gehitzen zaio zortzigarren xedapen gehigarriari. Honela dio:

«3. Sektore publikoko erakundeek erabaki badute kontratazio-prozedura batekin jarraitzea COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, errekurtsio berezia aurkeztu ahal izango da prozedura harekin loturik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako baldintzetan, eta errekurtsio-prozedura ezin izango da etentzat jo aipatutako hirugarren xedapen gehigarriaren lehenengo apartatuan xedatutakoaren babespean.

Xedapen gehigarri honen 1. apartatuan aurreikusitakoa ez zaie inolaz ere aplikatuko kontratazio-prozedura hauei: COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz sektore publikoko erakundeek jarraitzea erabaki duten kontratazio-prozedurei; hori dela-eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako errekurtsio bereziaren epeak lege horretan ezarritako moduan zenbatzen jarraituko dira.»

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.1.a, 6.a, 7.a, 8.a, 10.a, 11.a, 13.a, 14.a, 17.a, 18.a, 20.a eta 30.a arauetan xedatutakoaren babesean eman da, arau horiek eskumen eskusiboa ematen baitiote Estatuari oinarrizko baldintzak arau ditzan bermatzeko espainiar guztiak berdinak izango direla konstituzio-eskubideak egikaritzearen eta konstituzio-eginbeharrak betetzearen arloetan; merkataritza legediaren arloan; laneko legediaren arloan, autonomia-erkidegoetako organoek hori betearazteari dagokionez dituzten eskumenei kalterik egin gabe; legeria zibila, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, foru-zuzenbideak edo zuzenbide bereziak, halakoak dauden lekuetan, gorde, aldatu eta garatzeko dituzten eskumenei kalterik egin gabe; aduanen eta muga-zergaren araubidearen arloan; kreditua, banka eta aseguruak ordenatzeko oinarrien arloan eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan; Ogasun Nagusiaren eta Estatuaren Zorraren arloan; Gizarte Segurantzaren oinarrizko legediaren eta araubide ekonomikoaren arloan, autonomia erkidegoek haien zerbitzuak egikaritzeari kalterik egin gabe; Administrazio Publikoen araubide juridikoaren kontratu eta emakida administratiboan oinarrien arloan; merkataritzako nabigazioaren eta interes orokorreko portuen arloan, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarrizko arauen arloan, gai horretan botere publikoek dauzkaten betebeharrak bete daitezzen bermatze aldera.

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena eta betearaztea.*

Gobernuari eta ministerio-departamentu guztietako titularrei, bakoitzari bere eskumen-eremuan, ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Indarrean jartzea.*

1. Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean».

2. Errege lege-dekretu honen bidez apirilaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua 4. apartatuko f) letran egindako aldaketa aplikatuko zaie 1. artikuluan aipatutako ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzeko kontratuei, baldin eta kontratu horiek errege lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera egiten badira. Errege lege-dekretu hori futbol profesionaleko lehiaketetako ikus-entzunezko edukiak ustiatzeko eskubideak merkaturatzearekin lotutako premiazko neurriei buruzkoa da.

Madriren, 2020ko apirilaren 21ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

### ERANSKINA

#### 8. artikulua aipatzen dituen ondasunen zerrenda

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
1	Gailu medikoak.	Zainketa intentsiboetarako eta azpi-intentsiboetarako arnagailuak.	ex 9019 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako aparatuak).	ex 9019 20 00
		Oxigenoterapiako beste aparatu batzuk, oxigeno-dendak barne.	ex 9019 20 00
		Gorputzaz kanpoko mintzaren bidezko oxigenazioa.	ex 9018 90
2	Monitoreak.	Parametro anitzeko monitoreak, bertsio eramangarriak barne.	ex 8528 52 91
			ex 8528 52 99
			ex 8528 52 00
			ex 8528 52 10
3	Ponpak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Kanpo-nutriziorako ponpa peristaltikoak</li> <li>– Sendagaien infusiorako ponpak</li> <li>– Xurgapen-ponpak.</li> </ul>	ex 9018 90 50
			ex 9018 90 84
			ex 8413 81 00
		Aspirazio-zundak.	ex 9018 90 50
4	Hodiak.	Hodi endotrakealak.	ex 9018 90 60
		Hodi esterilak.	ex 9019 20 00
5	Kaskoak.	CPAP/NIV aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileko kaskoak;	ex 3917 21 10
			a ex 3917 39 00
6	Aireztapen ez-inbaditzaileko maskarak (NIV).	Aireztapen ez-inbaditzaileko aurpegi osoko maskarak eta maskara orononasalak.	ex 9019 20 00
7	Xurgatzeko sistemak/makinak.	Xurgatzeko sistemak.	ex 9019 20 00
		Xurgatze elektrikoko makinak.	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
8	Hezegailuak.	Hezegailuak.	ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9	Laringoskopiaok.	Laringoskopiaok.	ex 9018 90 20
10	Hornigai mediko suntsikorrak.	– Intubazio-kitak – Guraize laparoskopikoak.	ex 9018 90
		Xiringak, orratzarekin edo gabe.	ex 9018 31
		Metalezko orratz tubularrak eta josturetarako orratzak.	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak, kanulak.	ex 9018 39
		Sarbide baskularreko kitak.	ex 9018 90 84
11	Monitorizaziorako estazioak Pazienteak monitorizatzeko aparatuak – Elektrodiagnostikorako aparatuak.	Zainketa intentsiboetarako monitorizazio-estazio zentralak.	ex 9018 90
		– Pazienteak monitorizatzeko gailuak – Elektrodiagnostikoko aparatuak.	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	ex 9018 12 00
13	Elektrokardiografoak.	Elektrokardiografoak.	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak/eskanerrak.	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak.	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak.	– Aurpegirako ehun-maskarak, iragazki ordezkagarriak eta pieza mekanik gabekoak, horren barnean direla ehundu gabeko ehun-materialarekin egindako maskara kirurgikoak eta erabili eta botatzeko aurpegiko maskarak. – FFP2 eta FFP3 aurpegiko maskarak.	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak.	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Gas-maskarak, agente biologikoetatik babesteko pieza mekanikoak edo iragazki ordezkagarriak dituztenak. Begiak babesten dituzten maskarak edo aurpegiko ezkuak barne.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak.	Plastikozko eskularruak.	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak.	4015 11 00
		Gomazko bestelako eskularruak.	ex 4015 19 00
		Puntuzko eskularruak, plastikoz edo gomaz inpregnatuak edo estaliak.	ex 6116 10
		Puntuzkoak ez diren ehunezko eskularruak.	ex 6216 00
17	Aurpegirako babesak.	– Aurpegirako babesak, erabili eta botatzekoak nahiz berrerabilgarriak – Aurpegirako babesak, plastikozkoak (begiena baino azalera handiagoa estaltzen dutenak).	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak.	Babeserako betaurreko handiak eta txikiak (googleak).	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
19	Osoko jantziak Txabusina iragazgaitzak - hainbat mota - hainbat neurri Erabilera kirurgiko/medikorako babes-jantziak, feltroz edo ehundu gabeko oihalez eginak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijestuak (56.02 edo 56.03. partidetako ehunak) barne.	Erabilera anitzeko arropa (eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak barne), goma bulkanizatuzkoa.	ex 4015 90 00
		Jantziak.	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak.	ex 4818 50 00
		5903, 5906 edo 5907 partidetako puntuzko ehunez egindako jantziak.	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Puntuzko ehunez egindako beste jantzi batzuk.	6114
		Erabilera kirurgikorako/medikorako babes-jantziak, feltroz edo ehundu gabeko oihalez eginak, inpregnatuak edo inpregnatu gabeak, estaliak, gaineztatuak edo ijestuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak). Ehundu gabeko materialez egindako jantziak («spun-bonded») barne.	ex 6210 10
		Beste babes-jantzi batzuk, kautxuztaturiko ehunez eginikoak, edo inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo ijestutakoak (59.03, 59.06 edo 59.07 partidetako ehunak).	ex 6210 20 ex 6210 30 ex 6210 40 ex 6210 50
20	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	ex 3926 90 97
			ex 4818 90
			ex 6307 90 98
21	Txanoak.	Txano puntadunak.	ex 6505 00 30
		Txanoak eta bururako beste babesgarri batzuk, eta edozein materialezko sareak.	ex 6505 00 90
		Bestelako txanoak eta bururako babesgarriak, forratuta/doituta edo ez.	ex 6506
22	Termometroak.	Zuzeneko irakurketarako likidodun termometroak Beira barruan merkurioa daramaten termometro kliniko estandarrak barne hartzen ditu.	ex 9025 11 20 ex 9025 11 80
		Termometro digitalak edo termometro infragorriak, tenperatura kopetan neurtzeko.	ex 9025 19 00
		Eskuak garbitzeko xaboa eta prestatutako produktu organiko tentsioaktiboak (apain-mahaiko xaboa).	ex 3401 11 00 ex 3401 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboa.	Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak Xaboa beste forma batzuetan.	ex 3401 20 10 ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboa ez direnak) – Kationikoak.	ex 3402 12
		Azala garbitzeko produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak, likido edo krema itxurakoak eta txikizkako salmentarako prestatuak, xaboa dutenak edo ez.	ex 3401 30 00
		Horman instala daitezkeen eskuetarako desinfektatzaile-banagailuak.	Horman instala daitezkeen eskuetarako desinfektatzaile-banagailuak.

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
25	Soluzio hidroalkoholikoa litrotan.	2207 10: desnaturalizatu gabe, % 80ko alkohol etilikoko bolumena edo gehiagokoa.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizata, kontzentrazioa edozein dela ere.	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, % 80ko alkohol etilikoko bolumenetik beherakoa.	ex 2208 90 91 ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa % 3an, litrotan. Gainazalak garbitzeko prestakin desinfektatzaileetan sartutako hidrogeno peroxidoa.	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua edo ez.	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa soltean.	
		Eskuetarako desinfektatzailea.	ex 3808 94
		Beste prestakin desinfektatzaile batzuk.	
27	Larrialdietako garraiagailuak.	Desgaitasuna duten pertsonentzako garraioa (gurpil-aulkiak).	ex 8713
		Ospitaleetan edo kliniketan pazienteak eramateko ohatilak eta orgatxoak.	ex 9402 90 00
28	ARN erauzgailuak.	ARN erauzgailuak.	9027 80
29	COVID-19aren proba-kitak/Proba diagnostikoetan erabiltako tresnak eta aparatuak.	– Koronabirusaren proba diagnostikorako kitak – Immunologia-erreakzioetan oinarritutako diagnostiko-erreaktiboak.	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90
		Diagnostiko-erreaktiboak, polimerasaren kate-erreakzioan oinarrituta (PCR), azido nukleikoaren proba.	ex 3822 00 00
		Laborategi klinikoetan in vitro diagnostikorako erabiltzen den tresneria.	ex 9027 80 80
		Laginetarako kitak.	ex 9018 90 ex 9027 80
30	Isipiak.	Guata, gaza, bendak, koto-txotxak eta antzeko gaiak.	ex 3005 90 10
			ex 3005 90 99
31	Kanpaina-ospitaleak instalatzeko materiala.	Ospitaleetako oheak.	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpadendak.	ex 6306 22 00, ex 6306 29 00
		Plastikozko karpak/kanpadendak.	ex 3926 90 97
32	Botikak.	– Hidrogeno peroxidoa, medikamentu gisa aurkeztuta Paracetamola – Hidroklorokina/klorokina – Lopinavir/Ritonavir – Remdesivir – Tocilizumab.	ex 3003 90 00 ex 3004 90 00 ex 2924 29 70 ex 2933 49 90 ex 3003 60 00 ex 3004 60 00 ex 2933 59 95 ex 2934 10 00 ex 2934 99 60 ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskribapena	NC kodea
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1- propanola (alkohol propilikoa) eta 2- propanola (alkohol isopropilikoa).	1- propanola (alkohol propilikoa) eta 2 - propanola (alkohol isopropilikoa).	ex 2905 12 00
35	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol-peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak.	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol-peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak.	ex 2909
36	Azido formikoa.	Azido formikoa (eta gatz deribatuak).	ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salizilikoa.	Azido salizilikoa eta gatz deribatuak.	ex 2918 21 00
38	Erabilera bakarreko oihalak, 5603. partidako ehunekin eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen direnen motakoak.	Erabilera bakarreko oihalak, 5603. partidako ehunekin eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen direnen motakoak.	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, estaliak edo ijestuak izan edo ez.	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, estaliak edo ijestuak izan edo ez.	ex 5603 11 10 a ex 5603 94 90
40	Erabilera kirurgikoko, medikoko edo higienikoko artikulua, txikizkako salmentarako ez direnak.	Paperezko ohe-estaliak.	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, beirateri higienikoa edo farmazeutikoa.	Laborategiko beirateria, beirateri higienikoa edo farmazeutikoa, kalibratuta edo graduatuta egon zein ez egon.	ex 7017 10 00 ex 7017 20 00 ex 7017 90 00